# 21 GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA
# FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS

**DONOSTIA** / SAN SEBASTIÁN / **2024**

**12 - 19** apirila / abril



# PROGRAMAZIOA / PROGRAMACIÓN

**APIRILAK /** ABRIL

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **8** | astelehena lunes | 19:30 | | **THE TOWER**<br>*librea gonbidapenarekin / gratis con invitación* | **CP** |
| **9** | asteartea martes | 19:00 | | *MAHAI-INGURUA / MESA REDONDA*<br>**Protestar no es un crimen. La creciente criminalización de la desobediencia civil pacífica**<br>*librea gonbidapenarekin / gratis con invitación* | **VEA CLUB** |
| **10** | asteazkena miércoles | 19:00 | | *MONOLOGOA*<br>**Español (Lamine Thior)**<br>*librea gonbidapenarekin / gratis con invitación* | **AZ** |
| **11** | osteguna jueves | 19:00 | | **LUCES EN SOMBRA**<br>*librea gonbidapenarekin / gratis con invitación* | **AZ** |
| **12** | ostirala viernes | 16:30 | ▲ | **BARRIO**<br>*librea gonbidapenarekin / gratis con invitación* | **VEA** |
| | | 20:00 | ▲ | *INAUGURAZIOA / INAUGURACIÓN*<br>**EL SALTO** | **VEA** |
| | | 22:30 | | **WOMAN OF...** | **VEA** |
| **13** | larunbata sábado | 12:00 | | *HAURRENTZAKO ZINEMA / CINE INFANTIL*<br>**KURRIN**<br>*librea gonbidapenarekin / gratis con invitación* | **VEA** |
| | | 16:30 | | **BYE BYE TIBERIAS** | **VEA** |
| | | 19:00 | ▲ ● | **INDARKERIAREN OI(H)ARTZUNAK** | **VEA** |
| | | 19:00 | | **LA MADRE DE TODAS LAS MENTIRAS** | **TBK** |
| | | 21:30 | | **GREEN BORDER** | **VEA** |
| **14** | igandea domingo | 16:00 | | **SOBRE LA HIERBA SECA** | **VEA** |
| | | 16:30 | ▲ | **Nazioarteko film laburren maratoia**<br>***Maratón de cortometrajes internacionales*** | **AZ** |
| | | 20:00 | ▲ | **Film labur palestinarren saioa**<br>***Sesión de cortometrajes palestinos*** | **VEA** |
| **15** | astelehena lunes | 16:30 | | **MATRONAS** | **VEA** |
| | | 19:00 | ▲ | **AFTER WORK** | **VEA** |
| **16** | asteartea martes | 16:30 | | **MEDIHA** | **VEA** |
| | | 19:00 | ▲ | **LE MOT JE T'AIME N'EXISTE PAS** | **VEA** |
| **17** | asteazkena miércoles | 16:30 | | **DESERT PHOSfate + TAXIBOL** | **VEA** |
| | | 19:00 | ▲ | **PHOTOPHOBIA** | **VEA** |
| | | 19:00 | | **SUBJECT** | **TBK** |
| **18** | osteguna jueves | 16:30 | | **LOST COUNTRY** | **VEA** |
| | | 19:00 | ▲ | **ÉTAT LIMITE** | **VEA** |
| | | 19:00 | | **DIEU EST UNE FEMME** | **TBK** |
| **19** | ostirala viernes | 17:00 | | **MUERTE EN AMARA**<br>*librea gonbidapenarekin / gratis con invitación* | **VEA** |
| | | 20:00 | ▲ ● | *BUKAERA / CLAUSURA*<br>**NINA** | **VEA** |

Sarrerak / Entradas: **5 €**
Tabakalera: **4 €**

Gonbidapenak / Invitaciones:
Victoria Eugenia Antzokia & Antzoki Zaharra
www.zinemaetagizaeskubideak.eus

**VEA** Victoria Eugenia Antzokia
**AZ** Antzoki Zaharra / *Teatro Principal*
**TBK** Tabakalera
**CP** Cines Príncipe

▲ Pertsona gorrentzat azpititulu egokituak dituzten filmak eta zeinu hizkuntza zerbitzua duten solasaldiak
Sesiones con subtitulación accesible para personas sordas y coloquios con intérprete de lengua de signos

● Saioak audiodeskripzioarekin / Sesiones con audiodescripción (**AudescMobile**)

## AURKEZPENA

Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia bueltan da, hogei urte beteak dituenean, munduari, gaurkotasunari, baina baita iraganari ere, leiho bat irekitzeko, eta gogora ekartzeko asko dagoela oraindik egiteko. Izan ere, zinemaldi hau sortu zenetik bi hamarkada igaro direnean, oraindik ere badira kontatzeko istorioak, bisitatzeko tokiak, planeta osoan abian diren gatazka belikoak, esaterako Ukrainan eta Gazan, mundu guztiaren begien bistan, leku batetik bestera berehala zabaltzen diren irudien aro honetan.

Aitzitik, Victoria Eugenia eta Antzoki Zaharreko pantailetan erakutsi beharreko irudiek haratago joatea dute helburu, hausnarketa bultzatzeko. Edizio honetako kartelaren helburu bera da: lurbira agertzen da, pilota ilun eta deformatu baten itxura hartuta, zabor-poltsa baten barruan ezkutatua; ezin du eragotzi, ordea, bere miseriak agertzea.

Zineak informazio tresna izaten jarraituko du aurten ere, ahalmen handiko arma bat, minuturo gertatzen diren giza eskubideen urraketak salatzeko. Artea, argazkilaritza, elkarrizketak... kolaboratzaile ere bihurtzen dira istorio latzak eta kasu batzuetan jasanezinak kontatzeko, baina baita itxaropena partekatzeko ere.

Zinegileen eta arlo askotako pertsona ezagunen bisitek pantailan proiektatutako irudiek kontatzen dutena ulertzen eta aztertzen lagunduko diote publikoari, XXI. mendearen bigarren hamarkadako errealitate konplexura hurbiltzearren.

Zineak eta gainerako arteek beren alea jar dezakete, gure ezagutzaz haratago joateko. Irudiek, kontatu ez ezik, aldaketan lagundu dezaketela pentsatzen jarraitzen dugu, mundu baketsu, bidezkoago eta solidarioago bat lortzeko.

## PRESENTACIÓN

El Festival de Cine y Derechos Humanos de Donostia / San Sebastián vuelve, ya cumplidos veinte años, para abrir una ventana al mundo, a la actualidad pero también al pasado, para recordarnos que queda mucho por hacer. Porque dos décadas después de su nacimiento sigue habiendo historias que contar, lugares que visitar, conflictos bélicos en marcha en todo el planeta, como por ejemplo en Ucrania y en Gaza, a la vista de todo el mundo, en esta era de imágenes que viajan con inmediatez de un lugar a otro.

Por contra, las imágenes a mostrar en las pantallas de nuestros teatros Victoria Eugenia y Principal buscan ir más allá incitando a la reflexión. Es el mismo propósito del cartel de esta edición, con un globo terráqueo transformado en una pelota oscura y deformada que se esconde dentro de una bolsa de basura, lo que no puede impedir que se vean sus miserias.

El cine seguirá siendo un año más una herramienta de información, un arma poderosa para denunciar las violaciones de derechos humanos que se producen cada minuto. El arte, la fotografía, los diálogos... se convierten también en colaboradores para contar historias duras y en algunos casos insoportables, pero también para compartir esperanza.

Las visitas de cineastas y personalidades de diversos campos ayudarán al público a comprender y a analizar lo que cuentan las imágenes proyectadas en la pantalla, a acercarse a la compleja realidad de la segunda década del siglo XXI.

El cine y las demás artes pueden aportar su grano de arena para ir más allá. Continuamos pensando que sus imágenes pueden no solo contar sino también contribuir al cambio para conseguir un mundo en paz, más justo y solidario.

**Eneko Goia Laso**
Donostiako Alkatea



# FERNANDO LEÓN DE ARANOA

## GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIAREN SARIA

Gidoilaria, ekoizlea eta fikzio eta dokumentalen zuzendaria. Azken hiru hamarkadetan, XXI. mendearen hasierako Espainiako bizitzaren kronista argienen artean kokatu da. Klase xumeenen erretratugilea da bera, eta langileekiko jarrera konprometitua eta solidarioa erakutsi izan du beti, besteak beste **Los lunes al sol** (2002) edo bere azken fikzioa den **El buen patrón** (2021) filmetan.

1996an **Familia** film harrigarriarekin debuta egin zuenetik, **Barrio** (1998), **Princesas** (2006), **Amador** (2010), **A Perfect Day** (2015) eta **Loving Pablo** (2017) zuzendu ditu.

Bestetik, askotan hurbildu da dokumentalaren generora: Mexikora joan zen **Caminantes** (2001) filmean martxa zapatista filmatzeko, baita Ugandara ere, neska eta mutil soldaduen istorioa kontatzen duen eta **Invisibles** (2007) film kolektibo barruan dagoen **Buenas noches, Ouma** filma grabatzeko. Azken urteotan gainera Podemosen bilakaera politikoa (**Política, manual de instrucciones**, 2016) eta Joaquín Sabinaren bizitza eta ibilbidiea (**Sintiéndolo mucho**, 2022) jaso ditu.

Lau aldiz irabazi du zuzendari onenaren Goya saria, hiru aldiz gidoi onenarena, bi aldiz film onenarena eta bat dokumental onenarena, eta bere filmak maiztasunez aurkezten dira mundu osoko zinemaldietan, besteak beste Donostiakoan, non film onenaren Urrezko Maskorra jaso zuen **Los lunes al sol** filmagatik, eta zuzendaritza onenaren Zilarrezko Maskorra **Barrio**gatik.

## PREMIO FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS

Guionista, productor y director de ficción y documentales, se ha convertido en las últimas tres décadas en uno de los cronistas más lúcidos de la vida en la España de comienzos del siglo XXI. Retratista de las clases más humildes, siempre desde una posición comprometida y solidaria con las trabajadoras y trabajadores en títulos como **Los lunes al sol** (2002) o su última ficción, **El buen patrón** (2021).

Desde su debut en 1996 con la sorprendente **Familia**, ha dirigido **Barrio** (1998), **Princesas** (2006), **Amador** (2010), **A Perfect Day** (2015) y **Loving Pablo** (2017).

También se ha acercado en numerosas ocasiones al género documental, viajando a México para rodar la marcha zapatista hacia la capital en **Caminantes** (2001) y hasta Uganda para contar una historia de niñas y niños soldado en **Buenas noches, Ouma**, su participación en la película colectiva **Invisibles** (2007). En los últimos años ha seguido la evolución política de Podemos (**Política, manual de instrucciones**, 2016) y a Joaquín Sabina (**Sintiéndolo mucho**, 2022).

Ha ganado cuatro veces el Goya al mejor director, tres al mejor guion, dos a la mejor película y uno al mejor documental y ha presentado sus películas con regularidad en festivales de todo el mundo, como San Sebastián, donde ha recibido la Concha de Oro a la mejor película por **Los lunes al sol** y la de Plata a la mejor dirección por **Barrio**.

ostirala / viernes > apirilak **12** abril / **16:30**
Victoria Eugenia Antzokia

**librea gonbidapenarekin /** gratis con invitación

## **BARRIO** (1998)

Fernando León de Aranoa. Espainia / España. 94 min

*gaztelania*

Hiri handietako hegoaldean dauden auzo horietako batean, Javi, Manu eta Rai institutuko ikaskideak dira. Adin horretan asko hitz egiten da neskez, eta oso gutxi neskekin. Bestetik, auzoko bizitza, udako beroa eta arazo ugari partekatzen dituzte. Aurreneko arazoa auzoa bera da, etxebizitza sozialen bloke handiak altxatzen diren lekua, adreilu ilunekoak eta arkitektura deprimigarria eta goibela dutenak. Han gauza gutxi dago egiteko, eta abuztuan are gutxiago.

En uno de esos barrios situados al sur de las grandes ciudades, Javi, Manu y Rai son compañeros de instituto. Tienen esa edad en la que se habla mucho de chicas y muy poco con ellas. Comparten también la vida en el barrio, el calor del verano y un montón de problemas. El primero es el propio barrio, un lugar de grandes bloques de viviendas sociales, de ladrillo oscuro y arquitectura deprimente y depresiva. Allí hay pocas cosas que hacer, y en agosto aún menos.

**SOLASALDIA / *COLOQUIO*: Fernando León de Aranoa**



ostirala / viernes > apirilak **12** abril / 20:00
Victoria Eugenia Antzokia

**INAUGURAZIOA /** INAUGURACIÓN

## **EL SALTO** (2023)

Benito Zambrano. Espainia-Frantzia / España-Francia. 90 min *gaztelania, frantsesa* *euskara, gaztelania*

Ibrahim Ginea Conakrytik iritsi zen Espainiara, eta orain Madrilen bota ditu sustraiak. Bertan, Mariamarekin bizi da eta igeltsero lanetan dabil. Egun batean atxilotu egiten du poliziak, eta erresidentzia baimenik ez duenez, bere herrialdera deportatzen dute Ibrahim. Une horretatik aurrera, bere helburu bakarra Espainiara itzultzea izango da, Mariamarekin eta jaiotzeko zorian den bere alabarekin elkartzeko.

Ibrahim llegó a España desde Guinea Conakry y ahora sus raíces están en Madrid, donde vive con Mariama y trabaja como albañil. Un día, la policía le detiene e Ibrahim, que carece de permiso de residencia, es deportado a su país. A partir de ese momento, su único objetivo será regresar a España para reunirse con Mariama y su hija a punto de nacer.

### MELILLA: LOTSAREN BESTE HORMA BAT

Harresiz eta mugez betetako mundu batean bizi gara, eta herrialde aberatsenak gero eta gehiago gotortzen ari dira beren herrialdea uztera eta nazioarteko babesa bilatzera behartutako migratzaileei eta errefuxiatuei sarrera eragozteko.

Europa eta bere Schengen Eremua deitutakoa adibidez, 2014an, 315 kilometroko muga hesituekin blindatu ziren kanpoaldetik. 2015ean, "errefuxiatuen krisia" deitutakoak hesi horiek luzatzeko estrategia politiko bateratu bat ekarri zuen berekin. Gaur egun, 2.000 kilometro baino gehiago dituzte guztira. Hortik dator "Europa gotorlekua" esaera.

Espainiako estatuan, Ceuta eta Melillako hesiak laurogeita hamarreko hamarkadan eraiki ziren, itxitura soil baten moduan. Gaur egun, Melillako 11,5 kilometroko mugako perimetroa sentsore edo hortzez hornitutako bost hesiz eta hiru metroko hobi batez inguratuta dago. Salto egitea lortu eta atxilotuak izaten direnak itzularazi egiten dituzte legezko prozedura baten bermerik gabe. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, 2020ko otsaileko epai polemiko batean, eta Konstituzio Auzitegiak, urte bereko azaroko epai batean, "beroan egindako itzultzeak" gisa ezagutzen den praktika hori babestu zuten.

Horrela, saltoek arrakasta izan dezaten, taldeka egin ohi dira. Zoritxarrez, zenbaitetan tragikoa izaten da emaitza, 2022ko ekainaren 24an gertatu zen bezala. Amnistia Internazionalek emandako datuen arabera, 100 pertsona baino gehiago hil ziren egun hartan, Melillako Txinatar auzoan dagoen mugako postua zeharkatzeko ahaleginean: zigorgabetasunez eta iluntasunez inguratuta jarraitzen duten gertaerak. Hala, hesi horri eta Europako beste batzuei "lotsaren hormak" izen berria jarri zitzaien, Berlingo "lotsaren horma" (1961-1989) deitutakoaren oroitzapen tamalgarri gisa.

### MELILLA: OTRO MURO DE LA VERGÜENZA

Vivimos en un mundo de muros y fronteras, en el que los países más enriquecidos se fortifican cada vez más para impedir la entrada a personas migrantes y refugiadas forzadas a abandonar su país y buscar protección internacional.

Europa y su llamado Espacio Schengen, por ejemplo, en 2014 se blindaban del exterior con 315 kilómetros de fronteras valladas. La llamada "crisis de los refugiados" en 2015 desembocó en una estrategia política común de extenderlas. Hoy en día, suman más de 2.000 kilómetros. De ahí la expresión "la Europa fortaleza".

En el Estado español, las vallas de Ceuta y Melilla se construyeron en los años noventa como cercados simples. Hoy el perímetro fronterizo de 11,5 kilómetros de Melilla está rodeado por cinco vallas equipadas con sensores o cuchillas y por un foso de tres metros. Quienes consiguen saltar y son detenidos serán devueltos sin un procedimiento legal garantista. El Tribunal Europeo de Derechos Humanos, en una polémica sentencia de febrero de 2020, y el Tribunal Constitucional, en una sentencia de noviembre de ese mismo año, avalaron esta práctica conocida como "devoluciones en caliente".

Así pues, para que los saltos tengan éxito se suelen realizar en grupos. Desgraciadamente a veces terminan en tragedia, como ocurrió el 24 de junio de 2022. Amnistía Internacional elevó a más de 100 la cifra de personas que fallecieron aquel día en el intento de cruzar por el puesto fronterizo del Barrio Chino de Melilla: hechos que continúan rodeados de impunidad y oscurantismo. Ello les valió, a esta valla y a otras de Europa, el calificativo de nuevos "muros de la vergüenza", en lamentable recuerdo al conocido como "muro de la vergüenza" de Berlín (1961-1989).

ostirala / viernes > apirilak **12** abril / **22:30**
Victoria Eugenia Antzokia



## WOMAN OF... (*Kobieta z...*, 2023)

Małgorzata Szumowska, Michał Englert. Polonia-Suedia / Polonia-Suecia. 132 min

*poloniera* *gaztelania*

Poloniak komunismotik kapitalismorako trantsizioa bizi duen unean girotua, filmak Aniela Wesolyren bizitzako 45 urte jasotzen ditu. Bere helduaroaren erdia baino gehiago bizi izan du probintzietako hiri batean, gizon gisa. Aniela, ordea, emakume trans bat da, eta bere askatasun pertsonala aurkitzeko egiten duen bidaian hainbat zailtasuni egin behar die aurre bere familia-bizitzan, baita bere ingurunean jasaten duen ulermen ezari ere. Erabaki zail ugari hartu beharrean izango da benetan dena bihurtzeko.

Ambientada en el momento en que Polonia vive su transición del comunismo al capitalismo, la película cuenta 45 años en la vida de Aniela Wesoly, que vive más de la mitad de su vida adulta en una ciudad de provincias como un hombre. El viaje de Aniela para encontrar su libertad personal como mujer trans se enfrenta a innumerables dificultades en su vida familiar y a mucha incomprensión en su entorno. Debe tomar muchas decisiones difíciles para convertirse en quien realmente es.

## TRANSEXUALEN ESKUBIDEAK EUROPAN

Lesbiana, gay, bisexual, trans eta intersexualen eskubideak aitortzea oztopo lasterketa latz bat izan da historian zehar, eta murrizketa handiak izan ditu (2018. urtera arte ez zuen OMEk transexualitatea ezabatu nahasmendu mental eta portaerakoari buruzko kapitulutik). Transgender Europe (TGEU) erakundeak berriki egindako ikerlan baten arabera, kolektibo horren eskubideetan atzera egiteko arriskua errealitate kezkagarria da oraindik ere Eslovakian, Errumanian, Letonian, Lituanian, Zipren, Bielorrusian eta Bulgarian. Beste muturrean, trans pertsonen eskubideen garapenean aurrera egiteagatik nabarmendu diren herrialdeak Espainia, Moldavia, Andorra, Finlandia eta Islandia dira.

Hurbilago begiratuta, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrari eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeari buruzko 4/2023 Legea (Trans Legea deitua) onartzeak Europako 11 herrialdeen artean kokatzen du Espainiako estatua; “autoidentifikazio” modu bat duten herrialdeak dira, hau da, autodeterminazioan oinarritutako generoaren legezko aitorpen eredu bat dutenak. Bestalde, Eusko Legebiltzarrak aldatu berri du, 2024ko otsailean, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko Euskal Trans Legea.

Arauetan izandako aurrerapen horiek gorabehera, Espainiako estatuan inkesta egin zaien trans pertsonen %63k adierazi dute diskriminatuta sentitu direla azken urtean. Egoera hori larriagotu egiten da migratuak edo errefuxiatuak izateagatik dibertsitate funtzionalak edo desgaitasunak edo aniztasun kulturalak elkarri eragiten dioten transen kasuan.

## DERECHOS DE LAS PERSONAS TRANSEXUALES EN EUROPA

El reconocimiento de los derechos de las personas lesbianas, gais, bisexuales, trans e intersexuales ha sido a lo largo de la historia una carrera de obstáculos desigual y con importantes restricciones (no fue hasta el año 2018 cuando la OMS eliminó la transexualidad del capítulo sobre trastornos mentales y del comportamiento). Un reciente estudio de la organización Transgender Europe (TGEU) señala que el riesgo de regresión en los derechos de este colectivo sigue siendo una realidad preocupante en Eslovaquia, Rumanía, Letonia, Lituania, Chipre, Bielorrusia y Bulgaria. En el otro extremo, los países que han destacado por un avance en el desarrollo de los derechos de las personas trans son España, Moldavia, Andorra, Finlandia e Islandia.

Por cercanía, la aprobación de la Ley 4/2023 de igualdad real y efectiva de las personas trans y para la garantía de los derechos de las personas LGTBI (conocida como Ley Trans) sitúa al Estado español entre los 11 países europeos que cuentan con una forma de “autoidentificación”, es decir, un modelo de reconocimiento legal de género basado en la autodeterminación. Por otro lado, el Parlamento Vasco acaba de modificar, en febrero de 2024, la Ley Trans vasca de no discriminación por motivos de identidad de género y de reconocimiento de los derechos de las personas transexuales.

A pesar de estos avances normativos, nada menos que el 63% de las personas trans encuestadas en el Estado español manifiestan haberse sentido discriminadas en el último año. Ello se agrava en aquellas personas trans en quienes interseccionan la diversidad funcional o discapacidad, o la diversidad cultural por ser migradas o refugiadas.

larunbata / sábado > apirilak **13** abril / **12:00**
Victoria Eugenia Antzokia

**librea gonbidapenarekin /** gratis con invitación

**haurrentzako zinema**
cine infantil

ESERLEKU URDINA
BUTACA AZUL

GAUTENA
Gipuzkoako Autismo Elkartea
Asociación Guipuzcoana de Autismo



**Lehiaketatik kanpo /** Fuera de concurso

## KURRIN (*Knor*, 2022)

Mascha Halberstad. Herbehereak / Países Bajos. 72 min *euskara*

Babsek, 9 urteko neskato batek, Kurrin izeneko txerritxo bat jaso du aitonaren opari gisa. Gurasoak konbentzitu ditu txerritxoa mantendu ahal izateko, honek txakur adiestramendu bat jarraitzeko baldintzarekin. Txerritxoak bere bizitza osoa eta bere familiarena aldatuko du, baina gauzak okertzen hasiko dira ustekabean...

Cuando Babs cumple 9 años, su abuelo le regala un cerdito llamado Oink. A su madre y a su padre no les hace ninguna gracia tenerlo en casa, pero Babs consigue quedárselo con la condición de que Oink sea entrenado como un perrito. El cerdito cambiará su vida y la de toda su familia, pero las cosas comienzan a torcerse inesperadamente...









larunbata / sábado > apirilak **13** abril / **16:30**
Victoria Eugenia Antzokia



## BYE BYE TIBERIAS (2023)

Lina Soualem. Frantzia-Palestina-Belgika-Qatar / Francia-Palestina-Bélgica-Catar. 82 min

*frantsesa, arabiera* *euskara, gaztelania*

Hiam Abbassek hogei urte zituela utzi zuen Palestina, bere jaioterria, Europara joan eta aktore bihurtzeko ametsa bete nahian, ama, amona eta zazpi ahizpak atzean utzita. Hogeita hamar urte geroago, bere alaba Lina, zinegilea, berarekin batera bueltatzen da, eta lehen aldiz galdetzen dio bere buruari amak hartu zituen erabaki ausartei, aukeratutako erbesteari eta bere familiako emakumeek bien bizitzetan izan duten eraginari buruz. Iraganaren eta orainaren artean, egungo irudiak, familiaren laurogeita hamarreko hamarkadako grabazioak eta artxibo historikoak tartekatzen ditu lan honek emakume palestinarren lau belaunaldi erretratatzeko, eta haiek utzitako ondarea eta historia bizirik mantentzeko, erbesteak, etxegabetzeak eta bihotz erdiratuak eragindako atsekabea gorabehera.

Cuando tenía veinte años, Hiam Abbass se fue de su pueblo natal en Palestina para seguir su sueño de convertirse en actriz en Europa, dejando atrás a su madre, a su abuela y a sus siete hermanas. Treinta años después, su hija cineasta Lina vuelve allí con ella y se pregunta por primera vez acerca de las decisiones valientes que tomó su madre, su exilio elegido y la forma en que las mujeres de su familia han influido en las vidas de ambas. Entre el pasado y el presente, este trabajo alterna imágenes actuales, grabaciones familiares de los noventa y archivos históricos para retratar a cuatro generaciones de mujeres palestinas que mantienen vivos su legado y su historia a pesar del exilio, el desahucio y el corazón roto.

## MEMORIAREN TRANSMISIOA ERRESISTENTZIA MODU GISA

Tiberiades lakua Galilea eskualdean dago, gaur egun Israelen okupazioaren pean. 1948. urtera arte biztanle gehienak palestinarrak ziren. Iparraldean Libano du mugakide, hegoaldean Jordania, eta ekialdean Siria. Israelgo okupazioaren ondoren, herrialde horietara lekualdatu zuten bertako biztanleria palestinarra.

Martxoaren 8an, Emakumearen Egunean, hainbat manifestu feministek eman dute eremu horretako eta Palestinako beste leku batzuetako emakumeen egoeraren berri. Palestinako emakumeengan izan dituzten eta orain inoiz baino gehiago dituzten ondorio oso larriak salatu dira: 75 urteko okupazioa eta militarizazioa, erasoen gorakada, nazioarteko zuzenbide humanitarioaren eta giza eskubideen aurkako blokeo eta segregazio politika israeldarrak. Horri gehitu behar zaio emakume errefuxiatuen eta erbesteratuen kopurua; emakume horiei beren etxeetara itzultzeko eskubidea ukatu zaie, eta errefuxiatuen populazio zaharrena dira munduan.

Palestinako emakumeak oro har, alde egin behar izan zutenak eta bertan geratu zirenak ere, erresistentziaren eta erresilientziaren sinbolo dira. Orain arte, Palestinako identitate kulturala belaunaldiz belaunaldi iraunarazteaz, bizitzari eusteaz eta biziraupen estrategiak ehuntzeaz arduratu dira zitalkeriaren erdian, etengabeko zapalkuntza eta diskriminazioa jasan arren, bai eremu publikoan, bai pribatuan, indarkeriaren continuum batean.

2023ko urriaren 7tik, Gazako zerrenda suntsitzen ari den genozidioaren ondorioz, emakume horietatik 8.800 hil dira. Baita 13.230 adingabe ere. Guztira, 30.000 bizitza palestinar baino gehiago ezabatu dituzte, Gazako Osasun Ministerioak 2024ko martxoaren 1ean emandako datuen arabera.

## LA TRANSMISIÓN DE LA MEMORIA COMO FORMA DE RESISTENCIA

El lago Tiberíades se sitúa en la región de Galilea, actualmente bajo ocupación de Israel. Fue una zona habitada hasta 1948 mayoritariamente por población palestina. Limita al norte con Líbano, al sur con Jordania y al este con Siria. A estos países fue desplazada su población palestina tras la ocupación israelí.

De la situación de las mujeres en esta zona y en otras de Palestina se han hecho eco diferentes manifiestos feministas este 8 de marzo, Día de la Mujer. Se han denunciado las gravísimas consecuencias que sobre las mujeres palestinas han tenido y tienen, ahora más que nunca, 75 años de ocupación y militarización, escaladas de hostilidades, políticas israelíes de bloqueo y segregación contrarias al derecho internacional humanitario y a los derechos humanos. A ello hay que sumar el número de mujeres refugiadas y en el exilio, a quienes se ha negado el derecho a volver a sus hogares, siendo la población refugiada más antigua del mundo.

Las mujeres de Palestina en general, las que tuvieron que irse y también las que se quedaron, son símbolo de resistencia y resiliencia. Hasta ahora se han ocupado de preservar de generación en generación la identidad cultural palestina, sostener la vida y tejer estrategias de supervivencia en medio de la infamia, a pesar de padecer múltiples opresiones y discriminaciones, tanto en la esfera pública como privada, en un continuum de violencia.

Desde el 7 de octubre de 2023, como consecuencia del genocidio que asola la franja de Gaza, 8.800 de estas mujeres han muerto. También 13.230 menores de edad. En total, más de 30.000 vidas palestinas han sido arrebatadas, según datos del Ministerio de Sanidad de Gaza a 1 de marzo de 2024.

# SUSCRIPCIÓN

La suscripción en papel incluye, GRATIS, la EDICIÓN DIGITAL




REGALO ESPECIAL PARA NUEVAS SUSCRIPCIONES EN PAPEL*

## SUSCRIPCIÓN 1 AÑO

11 NÚMEROS (dos gratis) **50 €**

Llévese GRATIS uno de estos dos GRANDES REGALOS EN BLU-RAY

(A)



**2001**
**UNA ODISEA**
**DEL ESPACIO**
STANLEY KUBRICK

(B)




**PSICOSIS**
ALFRED HITCHCOCK

arvi

*Oferta válida solo para España hasta el 25/04/2024, para nuevos suscriptores y con el límite de las existencias de Blu-ray disponibles.

Suscríbase o haga su pedido en nuestra web:

**www.caimanediciones.es**

larunbata / sábado > apirilak **13** abril / **19:00**
Victoria Eugenia Antzokia



## INDARKERIAREN OI(H)ARTZUNAK
(2023)

Amaia Merino, Ander Iriarte. Espainia / España. 59 min

*gaztelania*

ETAk bere familia bahitu eta Estatuak aita torturapean hil eta 40 urtera, Tamara Muruetagoienak egiaren eta justiziaren bilaketa nekaezina egiten du. Tamarak, aurrez aurre, familiaren tragedia kontatzen du: iraultza zerga, ETAko talde batek 17 egunez bahitu izana, ondoren familia desegituratzea, estatuko makineriaren jazarpena, presio politikoa, epaiketa, aita eta amaren atxiloketa, torturak, hilketa... Baina baita bere bidea ere, egia jakitekoa, aitortzekoa, eta elkarrizketa erabiltzekoa gatazkak konpontzeko tresna nagusi gisa.

40 años después de que ETA secuestrara a su familia y el Estado asesinara bajo torturas a su padre, Tamara Muruetagoiena emprende una incansable búsqueda de verdad y justicia. Tamara, cara a cara, cuenta su tragedia familiar: el impuesto revolucionario, el secuestro por un comando de ETA durante 17 días, la posterior desestructuración familiar, la persecución de la maquinaria estatal, la presión política, el juicio, la detención de su padre y de su madre, las torturas, el asesinato... Pero también su camino hacia la verdad, el reconocimiento y el uso del diálogo como herramienta principal para la resolución de conflictos.

### EGIAREN ERREKONOZIMENDUA

Izugarrizko aurrerapausuak eman dira azken urteetan indarkeria matxista errekonozitu, salatu eta epaitzeko. Gure ustean handiena biktimaren egi-presuntzioa da. *"Me too"* edota *"Sí te creó / Sinisten zaitut"* fenomenoaz ari gara: gizarteak eta baita epaitegiek ere onartzen dute lehen pausoa errelatoa zalantzan ez jarri eta salatzailea babestea dela. Baliteke errelatoren bat egia ez izatea, bainan ulertu dugu konpobide integralaren bidean, askoz min handiagoa eragiten dutela kontakizuna zalantzan jartzea.

Torturatuen kasuan, ordea, oso bestelakoa da gizartearen jarrera: "Zerbaitengatik atxilotuko zuten! ¡Algo habrá hecho!". Edo estrategia bat da tortura salatzea. Entzuten da maiz.

Orain arte biok, gure sorkuntza lanetan, torturaren salaketan murgildu gara, gertakaria bera erakusten. Oraingoan, ordea, erreparazioaren eta justiziaren aurretik dagoen eskubidean jarri dugu fokua: egiaren errekonozimenduan.

### EL RECONOCIMIENTO DE LA VERDAD

En los últimos años se han producido importantes avances en el reconocimiento, denuncia y condena de la violencia machista; y el más importante de todos, a nuestro juicio, la presunción de verdad de la víctima. Nos referimos a fenómenos como el *"Me too"* o *"Sí te creó / Sinisten zaitut"*, donde tanto la sociedad como los tribunales reconocen que el primer paso que se debe dar es proteger a la persona denunciante y no cuestionar su relato. Cabe la posibilidad de que alguno de los relatos sea falso, pero a nuestro entender, el cuestionarlos en sí es uno de los hechos que más dolor causa en el camino hacia la reparación integral.

En el caso de las personas torturadas, sin embargo, la actitud de la sociedad es muy distinta: "¡Por algo le habrán detenido! ¡Algo habrá hecho!". O el pensar que se trate de una estrategia el hecho de denunciar una tortura. Es lo que se escucha con frecuencia.

Hasta ahora, en nuestras creaciones, hemos estado volcados en la denuncia de la tortura, en mostrar el hecho en sí mismo. Esta vez, sin embargo, hemos puesto el foco en el derecho que precede a la reparación y a la justicia: el reconocimiento de la verdad.

**Amaia Merino & Ander Iriarte**

**SOLASALDIA / *COLOQUIO***

**Ander Iriarte** & **Amaia Merino:** filmaren zuzendariak / *director y directora de la película*
**Tamara Muruetagoiena:** filmaren protagonista / *protagonista de la película*

larunbata / sábado > apirilak **13** abril / **21:30**
Victoria Eugenia Antzokia



## GREEN BORDER (2023)

Agnieszka Holland. Polonia-AEB-Frantzia-Txekiar Errepublika-Belgika / Polonia-EEUU-Francia-República Checa-Bélgica. 147 min

*poloniera, arabiera* *gaztelania*

Bielorrusiaren eta Poloniaren arteko "muga berdea" osatzen duten baso engainagarri eta zingiratsuetan, Ekialde Hurbileko eta Afrikako errefuxiatuak Europar Batasunera iritsi nahian dabiltza, Alexander Lukashenko diktadore bielorrusiarrak zinikoki asmatutako krisi geopolitiko batean harrapatuta. Europa zirikatzeko saialdi batean, errefuxiatuak mugara erakartzen dituzte EBra erraz igarotzeko itxaropena pizten dien propagandaren bidez. Gerra ezkutu honetako peoien artean daude, Julia, bere bizitza erosoari uko egin dion ekintzaile errekrutatu berria, Jan, mugako guardia gazte bat, eta Siriako familia bat. Hala, haien bizitzak elkarlotu egiten dira bertan.

En los bosques traicioneros y pantanosos que conforman la llamada "frontera verde" entre Bielorrusia y Polonia, las personas refugiadas de Oriente Medio y África que intentan llegar a la Unión Europea están atrapadas en una crisis geopolítica cínicamente diseñada por el dictador bielorruso Alexander Lukashenko. En un intento de provocar a Europa, son atraídas a la frontera mediante propaganda que promete un paso fácil a la UE. Peones en esta guerra oculta, las vidas de Julia, una activista recién reclutada que ha renunciado a su vida confortable, Jan, un joven guardia fronterizo, y una familia siria se entrelazan.

## MIGRAZIOAK ARMA POLITIKO ETA MILITAR GISA ERABILTZEA

Herrialdeen arteko gerrak eta gatazkak gertatzen diren joko-eremuan, arma berri bat erabiltzen ari dira: migratzaileak eta errefuxiatuak. Haurrak, familiak eta bakarrik dauden pertsonak, beren jatorrizko herrialdeetatik ihes egitera behartuak, objektu gisa erabiltzen dira, euren giza estatusaz gabetuta, bandoak haiekin "pilota joko" antzeko batean aritu bitartean mugen artean. Nazioarteko gerra estrategia eta xantaia politikorako estrategia gisa erabiltzen den "migrazioen instrumentalizazioa" deitutako horren hiru adibide, hemen: 2020ko otsailean, Erdoganen Gobernuak 13.000 errefuxiatu "bidali" zituen Greziako mugara, Europar Batasuna finantza ordainketa handiagoa egitera behartzeko, mugako jendarme izatearen truke. 2021eko maiatzean, Marokok 10.000 pertsona arauz kanpo Ceutara sartzea ahalbidetu zuen, Espainiako estatua zigortzeko, Logroñoko ospitale batean Fronte Polisarioko lider sahararra hartu zuelako. 2021eko udazkenean, Bielorrusiako erregimenak erraztu egin zuen milaka errefuxiatu Polonia, Letonia eta Lituaniako mugetara iristea, EB zigortzeko.

Migrazioen instrumentalizazio hori nazioarteko politika eta gerra taktika mota berri baten parte da. Politika eta taktika horiei "hibrido" deitu zaie; izan ere, baliabide konbentzionalen erabilera (militarrak, diplomatikoak...) beste bitarteko irregular batzuekin konbinatzen dute, tartean migrazioarekin edo albiste faltsuekin, harrerako gizarteetan xenofobia sustatzeko. Haien gizatasunik eza eta legezkontrakotasuna salatu dute erakundeek, eta migratzaileen eta asilo-eskatzaileen oinarrizko eskubideen urraketa sistematiko horien zigorgabetasunari azkena emateko eskatzen dute.

## LA INSTRUMENTALIZACIÓN DE LAS MIGRACIONES COMO ARMA POLÍTICA Y MILITAR

En el tablero de juego donde se libran las guerras y conflictos entre países, una nueva arma está siendo usada: las propias personas migrantes y refugiadas. Niñas, niños, familias y personas solas, forzadas a huir de sus países de origen, son utilizadas como objetos, desprovistas de su estatus humano, que los distintos bandos se "pelotean" entre fronteras. Van tres ejemplos de esta llamada "instrumentalización de las migraciones" usada como estrategia de guerra y de chantaje político internacional. En febrero de 2020, el Gobierno de Erdogan "envió" a 13.000 personas refugiadas a la frontera con Grecia, para forzar a la Unión Europea a un mayor desembolso financiero a cambio de ser su gendarme fronterizo. En mayo de 2021, Marruecos permitió que 10.000 personas entraran irregularmente a Ceuta, para castigar al Estado español por haber acogido en un hospital de Logroño al líder saharaui del Frente Polisario. En otoño de 2021, el régimen bielorruso facilitó que miles de personas refugiadas llegaran a las fronteras de Polonia, Letonia y Lituania también para castigar a la UE.

Esta instrumentalización de las migraciones forma parte de un nuevo tipo de políticas internacionales y tácticas bélicas bautizadas como "híbridas", en tanto combinan el uso de medios convencionales (militares, diplomáticos...) con otros medios irregulares, como la migración o las noticias falsas para incitar a la xenofobia en las sociedades de acogida. Su inhumanidad e ilegalidad ha sido denunciada por organizaciones que reclaman el fin de la impunidad a estas violaciones sistemáticas de los derechos fundamentales de las personas migrantes y solicitantes de asilo.

igandea / domingo > apirilak **14** abril / **16:00**
Victoria Eugenia Antzokia



© Nuri Bilge Ceylan

## SOBRE LA HIERBA SECA

(*Kuru otlar üstüne / About Dry Grasses*, 2023)

Nuri Bilge Ceylan. Turkia-Frantzia-Alemania / Turquía-Francia-Alemania. 197 min

*turkiera* *gaztelania*

Samet, arte irakasle gaztea, lau urte iraundako derrigorrezko soldadutza zerbitzua amaitzen ari da Anatoliako herri urrun batean. Gertaerek beste norabide bat hartu dute ustekabean, eta bere burua harrapatuta ikusten duen bizitza ilun horretatik ihes egiteko itxaropena galtzen du. Nurayrekin topo egiteak, irakaslea bera ere, lagunduko al dio bere larritasuna gainditzen? Nuri Bilge Ceylan turkiar zinegilearen film berria; berak zuzenduak dira, besteak beste, **Three Monkeys** (2009), **Once Upon a Time in Anatolia** (2011) eta **The Wild Pear Tree** (2018).

Samet, un joven profesor de arte, está acabando su cuarto año de servicio obligatorio en un remoto pueblo de Anatolia. Después de un giro inesperado de los acontecimientos, pierde la esperanza de escapar de la vida sombría en la que se siente atrapado. ¿Su encuentro con Nuray, también maestra, le ayudará a superar su angustia? Nueva película del cineasta turco Nuri Bilge Ceylan, responsable de, entre otras, **Tres monos** (2009), **Érase una vez en Anatolia** (2011) o **El peral salvaje** (2018).

### ALDE JOKATZEKO BEHARRA

Gizakia okerrena egiteko gai dela ziurtasun bat da, gure artean denbora asko daramana. Gerra, atentatu eta genozidioetan ikusten dugu, baina baita eskola-jazarpenaren, salaketen eta abusuen eguneroko zifretan ere. Han eta hemen gertatzen dira, Anatoliako herri txiki batean edo gure ingurutik gertu dagoen hiri handi batean. Errealitateak erakusten digu gure ekintza ohikoenak izaera konplexu batek tentsionatzen dituela, kontraesanez, erdizkako egiez, bekaizkeriaz eta interesez beteak. Ongiaren eta gaizkiaren arteko alde itzaleztatuetatik, gizakiok traizioak egiten dizkiegu geure printzipioei. Gizonok eta emakumeok min egiten dugu, eta gero hori ordaintzen ahalegintzen gara. Injustizia sortzen dugu eta gero aurre egin nahi diogu. Maitasuna, justizia, ideologiak, adiskidetasuna... dena dago mundu kaskarraren bertsio batek kutsatuta, eta horrek sufrimenduan eta egonezinean baino ez du eragiten.

Baina, zer erantzukizun dugu horren guztiaren gainean? Gure halabeharraren biktima gara edo erantzule gara? Solidarioa ez den sistema batean otzantasunez bizi garenez gero, deuseztatu eta suntsitu egiten gaituen sistema batean, komunitarioaren balioa dinamitatu eta indibidualismo basati batek ordezkatzen duen sistema batean?

Zaila da jakitea. Ordea, ukaezina dirudiena da ez dagoela astirik beste aldera begiratzeko. Alde jokatuz bakarrik lortuko dugu ulermen osoa eta egiazkoa, geure buruarena eta gertatzen zaigunaren ingurukoa. Gure halabeharraren erantzule egitea dagokigu, arragoa berri bat lortzeko borrokatu, mundu hobeago baterako beharrezkoak diren eskubideak eraikitzeko. Galdera da: Gai izango al gara?

### LA NECESIDAD DE TOMAR PARTIDO

Que el ser humano es capaz de lo peor es una certeza que lleva mucho tiempo instalada entre nosotros y nosotras. Lo vemos en las guerras, atentados y genocidios; pero también en las cifras cotidianas de acoso escolar, denuncias, abusos. Estos ocurren allí y aquí, en un pequeño pueblo de la Anatolia o en una gran ciudad próxima a nuestro entorno. La realidad nos demuestra que nuestros actos más habituales se encuentran tensionados por una naturaleza compleja, repleta de contradicciones, de verdades a medias, de envidias e intereses. Desde las zonas grises entre el bien y el mal, las personas cometemos traiciones a nuestros propios principios. Los hombres y las mujeres hacemos daño y luego nos esforzamos en resarcirlo. Creamos injusticia y luego buscamos combatirla. El amor, la justicia, el amor, las ideologías, la amistad... todo está contaminado por una versión del mundo mediocre que solo redunda en sufrimiento y desazón.

Pero, ¿qué responsabilidad tenemos sobre todo esto? ¿Somos víctimas o somos responsables de nuestro destino, al vivir sumisamente dentro de un sistema insolidario, que nos anula y nos destruye, a medida que dinamita el valor de lo comunitario sustituyéndolo por un individualismo feroz?

Es difícil saberlo. Lo que parece innegable es que ya no hay tiempo para mirar hacia otro lado. Solo tomando partido podremos alcanzar una comprensión verdadera y completa de nosotros y nosotras y de lo que nos pasa. Toca hacernos responsables de nuestro destino, luchar para conseguir un nuevo crisol en el que forjar los derechos necesarios para un mundo mejor. La pregunta es: ¿seremos capaces?

igandea / domingo > apirilak **14** abril / **16:30**
Antzoki Zaharra / Teatro Principal

## NAZIOARTEKO FILM LABURREN MARATOIA
## MARATÓN CORTOS INTERNACIONALES
(185 min)

### **Anteparaíso** (2024)

Koldo Almandoz. Espainia / España. 8 min

*gaztelania, wolof* *gaztelania, euskara*



Paradisua, itsasontzi bat eta turista bat mugikor batekin.

El paraíso, un barco y un turista con un móvil.

### **Crop Top** (2023)

Zoé Simpson, Victor Picard. Frantzia / Francia. 20 min

*frantsesa* *gaztelania, euskara*



Clémencek, hegazkineko azafatak, bakarrik hazten ditu bere alaba nerabeak, bere aita, Patou, hippie ohiaren noizbehinkako laguntzarekin. Egun batean, Dalva, 16 urtekoa, institututik itzultzen da bularretako baten tamainako *crop top* bat jantzita daramala. Clémencek debekatu egiten dio *outfit* horrekin berriz irtetea... Hiru arotako ikuspegi eta borroka feministek talka egingo dute.

Clémence, azafata de vuelo, cría sola a sus hijas adolescentes, con la ayuda ocasional de su padre, Patou, un exhippie. Un día, Dalva, de 16 años, regresa del instituto luciendo un *crop top* no más grande que un sujetador. Clémence le prohíbe volver a salir con ese *outfit*... Las visiones y las luchas feministas de tres eras distintas chocarán.

### **Eldorado** (2023)

Mathieu Volpe. Belgika-Italia / Bélgica-Italia. 19 min

*italiera, frantsesa* *gaztelania, euskara*



Awak, jatorriz Kamerungoak, elurra zapaltzeko makinen gidari lana egiten du La Thuilen, Frantziaren ondoan dagoen Italiako azken hirian. Txanda amaitzean, Souleymanerekin gurutzatzen da, muga zeharkatu nahian dabilen gaztearekin.

Originaria de Camerún, Awa trabaja como conductora de máquinas pisanieves en La Thuile, la última localidad italiana antes de Francia. Al finalizar su turno, se cruza con Souleymane, un joven que intenta desesperadamente cruzar la frontera.

### **أوروبا / Europe** (2024)

Ekain Irigoien. España / Espainia. 8 min

*arabiera* *gaztelania, euskara*



Lubna gerratik ihesi iritsi da Parisera. Bertan, baleek Eiffel dorrea nola zeharkatzen duten ikus dezake, bere gurasoak dorrearen ondora iristeko nahia adierazten duen bitartean.

Lubna ha llegado a Paris huyendo de la guerra. Allí puede ver cómo las ballenas sobrevuelan la torre Eiffel, mientras expresa el deseo de que su madre y su padre puedan llegar junto a ella.

## **Forgetting Lenin** (2024)

Inka Achté, Einari Paakkanen. Finlandia. 6 min

*finlandiera* *gaztelania, euskara*



Finlandiar askorentzat, Vladimir Leninek esker ona merezi du 1917an Finlandiak Errusiarekiko lortutako independentziagatik. Putinek Ukrainaren aurka egindako erasoaren aurrean, ordea, Errusiako mugatik gertu dagoen Finlandiako Kotka herri txikiko biztanleek berraztertu egin beharko dute bertan duten Leninen azken estatuetako baten halabeharrari buruzko beren iritzia.

Para muchos y muchas finlandesas, Vladimir Lenin merece un agradecimiento por la independencia de Finlandia de Rusia en 1917. Pero ante la agresión de Putin contra Ucrania, la ciudadanía de Kotka, cerca de la frontera rusa, ha de reevaluar su opinión sobre el destino de una de las últimas estatuas de Lenin que se mantienen en pie.

## **La Grenade noire** (2023)

Ali Zare Ghanatnowi. Frantzia / Francia. 14 min

*frantsesa* *gaztelania, euskara*



Irango emakume gazte baten istorioa da (Ghazaleh), Irango “Emakumeak, Bizitza, Askatasuna” mugimenduan hil berri dutena, erregimeneko agenteek zuzenean tiro eginda. Berak filmatu zuen bere heriotzaren unea, berak kontatu zuen bere heriotza...

Esta es la historia de una joven iraní (Ghazaleh), recientemente asesinada en el movimiento “Mujeres, Vida, Libertad” en Irán, por un disparo directo de manos de los agentes del régimen. Ella misma filmó el momento de su muerte, ella misma es quien la cuenta...

## **La mujer ilustrada** (2023)

Isabel Herguera. Espainia / España. 8 min

*gujaratera, ingelesa* *gaztelania, euskara*



Ahmedabaden, Isabelek animazio tailer bat ematen du aldi baterako tatuajeen (*Mehndi*) artista talde batentzat. Elkarrizketak egiten dizkie beren ametsei buruz: Ramiak hegan egin nahi du, Saadiyak emakumeen parlamentu bat du amets, Shubhashree irrikan da Suitzara bidaiatzeko, eta Samirak bere independentzia aldarrikatzen du raparen bidez.

En Ahmedabad, Isabel imparte un taller de animación a un grupo de artistas del tatuaje temporal, el *Mehndi*. Les entrevista sobre sus sueños: Ramia desea volar, Saadiya sueña con un parlamento de mujeres, Shubhashree anhela viajar a Suiza y Samira revindica su independencia a través del rap.

## **Nafroush / Don’t Sell** (2023)

Mehrav Nouri. Iran / Irán. 18 min

*farsi* *gaztelania, euskara*



Irango krisi ekonomikoan murgilduta, auzo pobre batean, Amanek, bere alabaren gaixotasuna tratatu eta hari asko zor dioten fabrikatik kaleratutako langile errebeldeak haren haurra saldu nahi du neskame lanetan dabilen bere emazte Mehriren ezkutuan.

Durante la crisis económica de Irán, en un barrio pobre, Aman, un trabajador rebelde despedido de la fábrica donde trabaja, que debe luchar contra la enfermedad de su hija y que también tiene muchas deudas, quiere vender a su bebé sin que se entere su esposa, Mehri, una trabajadora doméstica.

## **Purga** (2023)

Gintarė Valevičiūtė-Brazauskienė, Antanas Skučas. Lituania. 13 min



1942ko negua. Zirkulu Polar Artikotik haratago, Trofimovsk uhartean, Laptev itsasoan. Sobietar Batasuneko agintariek leku hau aukeratu dute Baltikoko herrialde okupatuetako, Finlandiako, Ukrainako eta beste herrialde batzuetako milaka biztanle deportatzeko. Hemen, bizirik irauteko eguneroko borrokari egin behar diote aurre.

---

Invierno de 1942. Más allá del Círculo Polar Ártico, en la isla deshabitada de Trofimovsk, en el mar de Laptev. Este es el lugar elegido por las autoridades soviéticas para deportar a miles de habitantes de los países bálticos ocupados, Finlandia, Ucrania y otros. Aquí se enfrentan a una lucha diaria por la supervivencia.

## **Puzzleak (Bortxaketaren jauregia)** (2024)

Kote Camacho. Espainia / España. 15 min

*euskara* *gaztelania*



Neska gazte bat lur jota dago, bere biluzi batzuk Interneten dabiltzala jakitean. Orain, irudi traumatiko horiei aurre egitea beste aukerarik ez duela, ikertzeari ekin dio argazki horiek lehenbizi hartu eta ondoren zabaldu zituen argazkilari donostiar ezagun, babestu eta metodikoa.

---

Una joven cae en el abismo al descubrir que circulan en internet ciertos desnudos de ella de los que no tenía constancia. Ahora, sin otra alternativa que plantar cara a esas imágenes traumáticas, investiga al conocido, protegido y metódico fotógrafo donostiarra que las captó primero, para después difundirlas.

## **Surcos** (2023)

César Cárdenas. Ekuador / Ecuador. 14 min

*gaztelania*



Ezkutuko Ibilbideko Amonek oroitzapenekin eta jakintzekin azaleratzen dute beren iragana. Beren oroitzapen magikoen bidez, denborarekin galdu diren iraganeko tradizioen istorioak berpizten dituzte; antzinako errezetak, sendabide naturalak, baita aire gaiztoaren sendabidea ere.

---

Las Abuelas de la Ruta Escondida desentierran su pasado con memorias y saberes. A través de sus recuerdos mágicos, reviven historias de tradiciones pasadas que se han perdido con el tiempo, desde recetas ancestrales y remedios naturales hasta la cura del mal aire.

## **Teacups** (2023)

Alec Green, Finbar Watson. Australia-Irlanda. 7 min

*ingelesa* *gaztelania, euskara*



Ia mende erdiz, Don Ritchie bihotz-erdiratuta hurbiltzen zen labar baten ertzean suizidioa aukeratzat ikusten zuten pertsonengana, etxetik 30 bat metrora. Hugo Weavingen ahotsarekin, **Teacups**ek Donek bere buruaz beste egiten duten pertsona horiekin guztiekin dituen interakzio surrealistak aztertzen ditu.

---

Durante casi medio siglo Don Ritchie se acercaba conmocionado a las personas que se asomaban sl suicidio al borde de un acantilado, a solo unos 30 metros de su casa. Con la voz de Hugo Weaving, **Teacups** explora las interacciones surrealistas de Don con todas aquellas personas suicidas.

## **Things Unheard Of** (2023)

Ramazan Kiliç. Turkia / Turquía. 15 min

*kurduera* *euskara, gaztelania*



Istorio honetan, 10 urteko neskato batek, Şevin-ek, kurduerazko telebista-kate bat lortu nahi du bere amona mutu eta ohean datzanarentzat.

En esta historia, una niña de 10 años, Şevin, quiere sintonizar un canal de televisión en kurdo para su abuela muda y postrada en cama.

## **The Weight of Light** (2024)

Anna Hints. Estonia-Frantzia / Estonia-Francia. 20 min

*hindi* *euskara, gaztelania*



Surya gazteak kamera bat aurkitu du Delhiko zabor mendi handi batean. Horrela, inguruko emakumeen kontatu gabeko istorioen leiho bihurtzen da bere kamera. Dokumentalaren eta fikzioaren erdibideko film honek zabor biltzaileen komunitate bat du ardatz, hondakinen eta bero kiskalgarriaren artean, munduan duten lekua aurkitu nahian.

La adolescente Surya encuentra una cámara en una enorme montaña de basura en Delhi. Así es como su cámara se convierte en una ventana a las historias no contadas de las mujeres que la rodean. La película oscila entre el documental y la ficción y se centra en una comunidad de recolectores de basura que intentan encontrar su lugar en el mundo entre los deshechos y el calor abrasador.



**Erakusketa / Exposición**

**26. Luis Valtueña Nazioarteko Saria**
Argazkigintza Humanitarioa

**26º Premio Internacional Luis Valtueña**
Fotografía Humanitaria

**Apirila** 16 Abril
**Ekaina** 15 Junio

**Okendo Kultur Etxea /**
Centro Cultural Okendo

Human Rights Film Network

Connecting human rights film festivals around the world

# film

**is a powerful medium**
It can touch and **inspire audiences:** those who can **make a difference.**

A growing numbers of film festivals dedicated to the promotion of human rights are organised around the world. They cooperate in the Human Rights Film Network.

**Connect?**

**humanrightsfilmnetwork.org**

igandea / domingo > apirilak **14** abril / **20:00**
Victoria Eugenia Antzokia
🔊 *arabiera, ingelesa* ⊜ *euskara, gaztelania*

## FILM LABUR PALESTINARREN SAIOA
## SESIÓN DE CORTOMETRAJES PALESTINOS

Komisaria: **Annemarie Jacir**

Jakin dakidanez, Palestinako herritarren irudiak beti daude polemikan murgilduta, baita irudirik mundutarrenak direnean ere. Eta batez ere palestinarrek jasotako irudiak direnean. Gure bizitzak okupazio militarrak, lurren usurpazioak eta *apartheid*ak eragindako indarkeria-espiral amaigabe batek definitu ditu. Are gehiago, une honetan sakonera ilunenean murgilduta gaude. Azken bost hilabeteetan, gure oinazea, gure heriotza eta suntsipena agerian egon dira, mundu guztiaren begien bistan. Istorio izugarriak... zuzenean erraildako haurtxo, haur eta gurasoenak. Horrela, gero eta albiste izugarriagoekin esnatzen gara goizero. Eta ez dakit zer den okerragoa, nazioartearen isiltasuna, munduaren ezintasuna genozidio hau geldiarazteko...

Film labur sorta hau errefuxiatu familietan eta okupazio militarrean jaiotako zinegile palestinarrek egina da. Bizitza osoa beren existentziaz jabetuta bizi izan diren zinegileak; familiekin partekatutako uneak, beren eguneroko bizitza, eskolara ikastera joateko nahia, lan egiteko ahalmena... hori guztia kanpoko botere baten kontrolpean. Film labur hauek istorioak kontatzen eta artea sortzen jarraitzeko modu ugarietako bat dira haientzat, baita beren lurraldean ukatzen zaien askatasuna aldarrikatzeko ere.

Argi dago film hauek guztiak 2023ko urria baino lehen egin zirela. Palestinari buruz zerbait dakien edonork badaki inoiz ez dugula askatasun egunik ezagutu. Hamaika puskatan apurtu dituzte gure bihotzak. Baina ez zaigu inoiz ezabatuko. Egiten duguna egiten eta maitasunez egiten jarraituko dugu. Gure erresistentziaren testigantza da. Film laburren sail hau hori da, ez gehiago ez gutxiago.

Desde que tengo uso de razón, las imágenes de la población palestina siempre parecen estar envueltas en polémica, incluso cuando se trata de las imágenes más mundanas. Y sobre todo cuando se trata de imágenes de las y los propios palestinos. Nuestras vidas han estado definidas por una interminable espiral de violencia causada por la ocupación militar, la usurpación de tierras y el *apartheid*. Más aún, en este mismo momento estamos inmersos en la más oscura de las profundidades. Durante los últimos cinco meses, nuestro dolor, nuestra muerte y destrucción han estado expuestas, a la vista de todo el mundo. Historias horribles... de bebés, niños y niñas, madres y padres asesinados en directo. Así, cada mañana nos despertamos con noticias cada vez más terribles. Y no sé qué es peor, el silencio de la comunidad internacional, la incapacidad del mundo para detener este genocidio...

Esta serie de cortometrajes están realizados por cineastas palestinas y palestinos nacidos en el seno de familias de personas refugiadas y bajo la ocupación militar. Cineastas que han vivido toda su vida conscientes de su propia existencia; momentos compartidos con sus familias, su día a día, su deseo de ir a la escuela a estudiar, su capacidad para trabajar... todo ello bajo el control de un poder exterior. Estos cortometrajes significan para ellas y ellos una de las muchas formas en que pueden continuar narrando historias y creando arte, así como reivindicando la libertad que se les niega en su propio territorio.

Parece obvio afirmar que todas estas películas se hicieron antes de octubre de 2023. Cualquiera que sepa algo sobre Palestina sabe que jamás hemos conocido un día de libertad. Han roto nuestros corazones millones de pedazos. Pero nunca se nos borrará. Continuaremos haciendo lo que hacemos y haciéndolo con amor. Es un testimonio de nuestra resistencia. Esta serie de cortometrajes es eso, ni más ni menos.

**Annemarie Jacir**
2019ko Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiaren Saria
*Premio Festival de Cine y Derechos Humanos de San Sebastián 2019*

---

## **From Palestine With Love** (2022)

Annemarie Jacir. Palestina. 4 min



75. urteurrena ospatzen duen Locarnoko Zinemaldiaren enkarguz, eta **Postcards from the Future** izenburupean, nazioarteko zinemaren panoramako hamaika pertsona ospetsu gonbidatu zituzten film laburrak egitera, beren herrialdearen postal moduan, ondoren Piazza Granden, munduko pantaila handienetako batean, proiektatzeko.

Por encargo del Festival de Cine de Locarno, que celebraba su 75° aniversario, y bajo el título **Postcards from the Future**, once renombradas personalidades del panorama cinematográfico internacional fueron invitadas a realizar cortometrajes, a modo de postal de su país, para su proyección en la Piazza Grande, una de las pantallas más grandes del mundo.

---

**SOLASALDIA / *COLOQUIO***

**Carmen López Alonso:** Madrilgo Complutense Unibertsitatean Pentsamendu Politikoaren Historiako irakasle emeritua / *profesora emérita de Historia del Pensamiento Político en la Universidad Complutense de Madrid*
**Bárbara Ruiz Balzola**: UNRWAk (Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia) Euskadin duen ordezkaria / *delegada en Euskadi de UNRWA (Agencia de Naciones Unidas para la población refugiada de Palestina)*

## **Gaza-London** (2009)

Dima Hamdan. Erresuma Batua / Reino Unido. 14 min



Gaza, 2009. Israel bortizki erasotzen ari da Gaza. Mahmoud Londresen dago; bere ama, berriz, Gazan harrapatuta eta bere deiaren zain. Palestinako egoerari buruzko irratsaio batean parte hartzea onartu du, baina mugikorra itzali behar du.

Gaza, 2009. Se está produciendo un gran ataque de Israel en Gaza. Mahmoud está en Londres, su madre está atrapada en Gaza y él está desesperado esperando su llamada. Acepta participar en un programa de radio sobre la situación en Palestina, pero debe apagar su móvil.

## **Area C** (2018)

Salah Abu Nimah. Palestina. 10 min



Zisjordaniako C gisa sailkatutako eremuan, kolono israeldarrez inguratuta, Hussain txikia bere etxea kolonoengandik defendatu eta haiek urrun mantentzen saiatzen da, bertan bere gurasoekin geratu ahal izateko.

En el área clasificada como C de Cisjordania, rodeada de colonas y colonos israelíes, el pequeño Hussain trata de defender su casa y mantenerlos alejados, para poder quedarse allí junto a su madre y su padre.

## **Headcount** (2022)

Akram Al-Waara. Palestina. 14 min



Preso palestinar bat bakartuta dago Israelgo espetxe batean. Eguneroko giza interakziorako aukera bakarra espetxeko soldaduek zerrenda pasatzeko deia egiten duten unea da. Denboraren nozioa ez galtzeko borrokan, presoa behera etortzen hasia da. Handik denbora batera, labezomorro bat sartzen da bere zeldan, eta bere kontsolamendu iturri bakarra bihurtzen da.

Un preso palestino permanece recluido en régimen de aislamiento en una prisión israelí. Su única oportunidad de interacción humana diaria es el momento en el que los soldados de la prisión llaman a pasar lista. Luchando por no perder la noción del tiempo, el preso empieza a quebrarse. Transcurrido un tiempo, una cucaracha entra en su celda, convirtiéndose en su única fuente de consuelo.

## **Vibrations from Gaza** (2023)

Rehab Nazzal. Palestina-Kanada / Palestina-Canadá. 16 min



Gazako ume gorren bizipenetan barneratzen gaitu filmak, Palestinako kostaldeko lurralde kolonizatu eta konfinatuan. Israeldar okupazioan jaio eta hazitakoak, eta sarraski ugarien lekuko, Amani, Musa, Bilaka eta beste ume gor batzuek kontakizun biziak eskaintzen dizkigute zeruko bonbardaketei eta droneen presentzia etengabeari aurre egin behar izateari buruz.

La película nos adentra en las vivencias de los niños y niñas sordos de Gaza, territorio colonizado y confinado de la costa de Palestina. Nacidos y crecidos en la ocupación israelí y testigos de frecuentes incursiones, Amani, Musa, Israa y otras y otros ofrecen vivos relatos de su confrontación con los bombardeos y con la constante presencia de drones en los cielos.

astelehena / lunea > apirilak **15** abril / **16:30**
Victoria Eugenia Antzokia



## MATRONAS

(*Sages-femmes*, 2023)

Léa Fehner. Frantzia / Francia. 100 min

*frantsesa* *euskara, gaztelania*

5 urtez emagin lanbidea ikasi ondoren, Louise eta Sofia ospitale batean hasi dira lanean. Lan-munduari aurre egiteko unea da, erantzukizun handiak hartzekoa, dena erritmo frenetikoan igarotzen den eta pentsatzeko ia denborarik ez dagoen leku batean. Egunerokotasunean bizi duten prekarietateak jazarriak, etengabe egin behar diete aurre jaiotzari, amatasunari eta, zenbaitetan, heriotzari, haien bokazioa proban jarrita.

Después de 5 años aprendiendo el oficio de matronas, Louise y Sofia comienzan a trabajar en un hospital. Es el momento de enfrentarse al mundo laboral, a tomar grandes responsabilidades en un lugar donde todo discurre a un ritmo frenético y donde apenas hay tiempo para pensar. Acosadas por la precariedad a la que hacen frente en su día a día, deben enfrentarse continuamente con el nacimiento, la maternidad y a veces la muerte, poniendo a prueba su vocación.

### EMAGINAK: ERREIBINDIKAZIOAREN ETA KONPROMISOAREN ARTEAN

Historian zehar, emaginek funtsezko zeregina bete dute emakumeak beren bizitzako une garrantzitsuenetan zaintzeko: haurdunaldian, erditzean eta erditze ostean. Bizi-rol horren buru emakumeak izan dira eta izaten jarraitzen dute. Emakumeak izan dira emakumearen osasunaren zaindariak, hain une esanguratsuetan zaintza eta laguntza ematean.

Hala ere, emaginen ekarpen hori genero erlazio desberdinek itzali izan dute askotan, eta emaginak ahanzturara baztertzen eta profesional gisa deusezten saiatu dira. Zorionez, gaur egun inork ez du zalantzan jartzen ezinbestekoa dela beren presentzia medikuntza modernoan. Izan ere, beren kemen eta profesionaltasunari esker lortu dute leku bat egitea emakumearen sexu- eta ugalketa-osasuna artatzen duten talde profesionalen artean.

Gaur egun lanbide honek dituen beste erronka batzuk aldaketa sozial, demografiko, teknologiko eta zientifikoek tentsionatutako osasun-sistemen eskutik datoz. Horri baliabide urrien testuingurua eta osasun-zerbitzu publikoen finantzaketa eskasa gehitu behar zaizkio. Satse sindikatuak emandako datuen arabera, 2021ean Euskadik 371 emagin zituen 1.130.089 emakumeko biztanleriari arreta emateko: kopuru hori ez da nahikoa, argi eta garbi, EAEko biztanleriaren erdiari erantzuteko.

Horrek emaginen plantillak indartzeko aldarrikapena eragin du iritzi publikoan, ospitaleetan eta osasun-zentroetan. Emaginetan inbertitzeak emakumearen eta familien osasun integrala hobetzea dakar, haien gizarte-, sexu- eta genero-eskubideei erantzutea eskatzen jarraitzen den testuinguruan.

### MATRONAS: ENTRE LA REIVINDICACIÓN Y EL COMPROMISO

A lo largo de la historia, las matronas han desempeñado un papel fundamental en el cuidado de las mujeres durante momentos trascendentales de su vida: el embarazo, el parto y el posparto. Este rol vital ha sido y continúa siendo liderado por mujeres. Ellas han sido las guardianas de la salud de la mujer, brindando cuidado y apoyo en momentos tan significativos.

Sin embargo, esta contribución de las matronas ha sido a menudo eclipsada por las desiguales relaciones de género, que han intentado relegarlas al olvido y desautorizarlas como profesionales. Afortunadamente, a día de hoy nadie duda de que su presencia es indispensable en la medicina moderna. Gracias a su tesón y profesionalidad, han conseguido hacerse un hueco en los equipos profesionales que atienden la salud sexual y reproductiva de la mujer.

Otros retos a los que se enfrenta esta profesión hoy en día vienen de la mano de unos sistemas de salud tensionados por los cambios sociales, demográficos, tecnológicos y científicos. A ello se suma el contexto de recursos escasos y una deficiente financiación de los servicios públicos sanitarios. Según datos manejados por el sindicato Satse, en el año 2021 Euskadi contaba con 371 matronas para hacer frente a una población de 1.130.089 mujeres: una cifra claramente insuficiente para atender a la mitad de la población vasca.

Ello ha generado en la opinión pública la reivindicación de un refuerzo de las plantillas de matronas, en los hospitales y en los centros de salud. Invertir en matronas supone mejorar la salud integral de la mujer y de las familias, en un contexto en el que sigue urgiendo atender a sus derechos sociales, sexuales y de género.

astelehena / lunea > apirilak **15** abril / **19:00**
Victoria Eugenia Antzokia



© Fasad - Fredrik Wenzel

## **AFTER WORK** (2023)

Erik Gandini. Suedia-Italia-Norvegia / Suecia-Italia-Noruega. 81 min

*ingelesa, italiera, koreera, arabiera*
*gaztelania*

Gure gizartea laneko gizartea da. Haurtzarotik irakasten digute trebeak izaten. Adimen artifizialaren agerraldiaren ondorioz, gizakiak birplanteatu egin behar du lanak bere bizitzan duen papera, egun dauden lanbide gehienak hamarkada batzuetan desager baitaitezke. Horren ondorioei buruzko eztabaida teknologiako espezialistak eta ekonomialariak ari dira kontrolatzen, eta askotan zientzia fikziozko distopia baten ezaugarriak hartzen ditu. Badirudi eztabaidatik kanpo dagoela giza ikuspegia. Erik Gandini munduko hainbat lekutatik dabil bidaiatzen, etorkizuna nolakoa izango den eta gizakiak lan egiteari uzten dionean zer gertatuko den galdetzeko.

Nuestra sociedad es una sociedad del trabajo. Desde la infancia nos enseñan a intentar ser competentes. La aparición de la inteligencia artificial hace que el ser humano deba replantearse el papel que juega el trabajo en su vida, porque la mayor parte de los oficios que existen hoy día podrían desaparecer en unas décadas. El debate sobre las consecuencias de esto está siendo controlado por especialistas en tecnología y economistas, y a menudo adquiere los rasgos de una distopía de ciencia ficción. Lo que parece ausente del debate es la perspectiva humana. Erik Gandini viaja por medio mundo para preguntar cómo será el futuro y qué pasará cuando el ser humano deje de trabajar.

### LANAREN ETORKIZUNA

Historian zehar, lanaren kontzeptuak eta izaerak bilakaera nabarmena izan dute. Lehen zibilizazioetatik aro modernora, lana giza bizitzaren funtsezko zati bat izan da: kasu batzuetan oinarrizko premiak asetzeko, edo errealizazio pertsonalerako; beste batzuetan, alienazioa eta esplotazioa jasan behar izateko. Era berean, funtsezko zeregina izan du gizarteen garapenean, egun ulertzen dugun moduan.

Pandemiaren osteko eszenarioak zalantza handiak ekarri ditu lanaren etorkizunari buruz; krisi ekonomikoa, energetikoa eta klimatikoa hedatu diren garaian, izugarri handitu dira pobrezia eta desberdintasuna. Horregatik, adimen artifizialak (AI), beste garapen teknologiko batzuekin batera, tartean *big data*, gauzen internet eta *blockchain*, iraultza ekarriko du lanaren arloan. Munduko Ekonomia Foroaren 2023ko *Enpleguaren etorkizunari buruzko txostena*ren arabera, iraultza horrek, gaurtik hasita 2027ra arte, eraldaketa sakona eragingo du egungo lanpostuen % 50ean, 69 milioi enplegu berri sortuko ditu, eta 83 milioi kendu. Gainera, aurreikuspenen arabera, 2030ean gehien eskatuko diren lanen % 80 oraindik ez dira existitzen, edo duela oso gutxira arte ez ziren existitzen.

Lanaren etorkizunari buruzko ziurgabetasunaren testuinguru horretan, Oinarrizko Errenta Unibertsala deiturikoa sartu da eztabaidan. Horren arabera, herritar guztiek diru-kopuru bat jasoko lukete baldintzarik gabe erregulartasunez. Horren bideragarritasuna zalantzan jartzen duten ahotsak entzuten diren bitartean, beste batzuek diote hazkunde ekonomikoaren paradigmatik desberdintasuna murriztera eta munduan egoteko modu berriak esploratzera igarotzea ahalbidetuko lukeela.

### EL FUTURO DEL TRABAJO

A lo largo de la historia, el concepto y la naturaleza del trabajo han experimentado una notable evolución. Desde las primeras civilizaciones hasta la era moderna, el trabajo ha sido una parte esencial de la vida humana: en unos casos ha conllevado satisfacción de necesidades básicas, o realización personal; en otros, alienación y explotación. Asimismo, ha desempeñado un papel fundamental en el desarrollo de las sociedades tal y como las entendemos hoy en día.

El escenario postpandémico introdujo grandes incertidumbres respecto al futuro del trabajo, en un momento de crisis económica, energética, climática y con un aumento vertiginoso de la pobreza y la desigualdad. Por ende, la inteligencia artificial (IA) combinada con otros desarrollos tecnológicos como el *big data*, el internet de las cosas o el *blockchain* traerá una revolución laboral. Según el *Informe sobre el futuro del empleo* del Foro Económico Mundial en 2023, esta revolución generará, de aquí a 2027, una profunda transformación en el 50% de los puestos de trabajo actuales, creará 69 millones de nuevos empleos y eliminará 83 millones. Además, el 80% de los trabajos previsiblemente más demandados en 2030 todavía no existen, o no existían hasta hace muy poco.

En este contexto de incertidumbre sobre el futuro del trabajo, ha entrado en el debate la llamada Renta Básica Universal, por la que toda la ciudadanía recibiría regularmente una suma de dinero sin condiciones. Mientras hay voces que cuestionan su viabilidad, otras defienden que permitiría pasar del paradigma del crecimiento económico a reducir la desigualdad y posibilitar la exploración de nuevas formas de estar en el mundo.

**SOLASALDIA / *COLOQUIO***

**Ana Belén Valverde Cano:** Madrilgo Complutense Unibertsitateko Zuzenbide Penalaren arloko doktoratu ondoko ikertzailea / *investigadora postdoctoral en el área de Derecho Penal de la Universidad Complutense de Madrid*
**Germán Cuenca:** talentuarekiko erlazio orotan espezializatutako Ethikos nazioarteko aholkularitzaren CEO eta sortzaileetako bat / *CEO y cofundador de Ethikos, consultoría internacional especialista en todas las relaciones con el talento*

astearte / martes > apirilak **16** abril / **16:30**
Victoria Eugenia Antzokia



## MEDIHA (2023)

Hasan Oswald. AEB / EEUU. 90 min

*kurduera, turkiera, arabiera, ingelesa*

*euskara, gaztelania*

Mediha, ISISen bahiketatik itzuli berri den nerabe yazidi bat, bere buruari zuzentzen dio kamera, bere trauma prozesatzen saiatzeko, erreskate taldeak bere senide desagertuak bilatzen ari diren bitartean. Hau da yazidi herriaren genozidioaren historia, bizirik dirauen gazte baten begietatik kontatua. Bere iraganari aurre egin behar dio egunkari filmatu oso pertsonal bat erabiliz, bere ahotsa erreklamatzeko eta etorkizunerantz erabakitasunez aurrera egiteko.

Mediha, una adolescente yazidí que acaba de volver de su secuestro por parte del ISIS, vuelve la cámara hacia sí misma para intentar procesar su trauma al tiempo que los equipos de rescate buscan a los miembros de su familia desaparecidos. Esta es la historia del genocidio del pueblo yazidí contado a través de los ojos de una joven superviviente que se enfrenta a su pasado usando un diario filmado muy personal con el que reclama su voz y avanza con determinación hacia el futuro.

### EMAKUMEEN AURKAKO SEXU-INDARKERIA GATAZKA ARMATUETAN

Emakumeen aurkako sexu-indarkeria gerrako arma gisa erabiltzea ezaugarri izan da, eta oraindik ere hala da, munduko gatazka armatuetan. NBEk kategoria horretan sartzen ditu bortxaketa, esklabotza sexuala, GIBarekin nahita eragindako infekzioa, mutilazioa, prostituzio behartua, neskatoen ezkontzak... Praktika horietan, konkistaren, kolonizazioaren eta erabateko suntsipenaren lurraldetzat hartzen dira emakumeen gorputzak.

Konta ezin ahalak dira horren erakusgarriak historian, baita gaur egun ere: emakume esklabo sexualak japoniar armadarentzat Bigarren Mundu Gerran; sexu-indarkeriaren ehunka mila biktima 1971ko Bangladeshen; Bosniako gerran, Rwandako genozidioan. Oraintsuago: Kongon, Sudanen, Nigerian, Yemenen, Sirian, Libanon, Kolonbian, Myanmarren. Iraken, 2014an, baita geroago ere, Estatu Islamikoak (ISIS) 7.000 neska eta emakume yazidiar bahitu zituen, esklabo bihurtu zituen, bortxatu eta torturatu egin zituen, eta trauma eta ondorio sendaezinak eragin zizkien, erreskatatuak izandakoak eta beren komunitatera itzuli ahal izan zirenak barne.

Arauz, 1990eko hamarkadaren amaiera arte ez zituzten nazioarteko zigor-auzitegiek emakumeak gerraren biktimatzat hartu. 2008an, NBEko Segurtasun Kontseiluak sexu-indarkeriari buruzko berariazko lehen ebazpena (1.820) onartu zuen. Era berean, asilorako nazioarteko eskubidean aurrerapausoak eman dira indarkeria hau jazarpen motibotzat aitortzeko bidean. Oraintsu, 2024ko urtarrilaren 16an, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak emandako epai batek nazioarteko babesa aintzatesten du beren jatorrizko herrialdean sexu-indarkeriaren arriskuaren pean dauden emakumeentzat.

### LA VIOLENCIA SEXUAL CONTRA LAS MUJERES EN LOS CONFLICTOS ARMADOS

El uso de la violencia sexual contra las mujeres como arma de guerra ha sido, y sigue siendo, un denominador común atroz en los conflictos armados en el mundo. La ONU incluye bajo esa categoría la violación, esclavitud sexual, infección deliberada con VIH, mutilación, prostitución forzada, matrimonios de niñas... En dichas prácticas, los cuerpos de las mujeres son tratados como territorio de conquista, colonización y absoluta destrucción.

De ello dan cuenta ingentes ejemplos en la historia y también en la actualidad: esclavas sexuales para el ejército japonés durante la Segunda Guerra Mundial, cientos de miles de víctimas de violencia sexual en el Bangladesh de 1971, en el genocidio de Rwanda, en la guerra de Bosnia. Más recientemente: en el Congo, Sudán, Nigeria, Yemen, Siria, Líbano, Colombia, Myanmar. En Irak, en 2014 y tiempo después, el autodenominado Estado Islámico (ISIS) raptó a 7.000 niñas y mujeres yazidíes, las esclavizó, violó y torturó, provocando traumas y secuelas incurables incluso a aquellas que fueron rescatadas y pudieron volver a su comunidad.

Normativamente, no fue hasta finales de los años 90 cuando los tribunales penales internacionales reconocieron a las mujeres como víctimas de la guerra. En 2008 el Consejo de Seguridad de la ONU aprobó la primera resolución expresa (la 1.820) sobre violencia sexual. Asimismo, el derecho internacional al asilo ha avanzado en el reconocimiento de esta violencia como motivo de persecución. Una reciente sentencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea, de 16 de enero de 2024, reconoce la protección internacional a mujeres expuestas en su país de origen a actos de violencia sexual.

asteartea / martes > apirilak **16** abril / **19:00**
Victoria Eugenia Antzokia



## LE MOT JE T'AIME N'EXISTE PAS
(2022)

Raphaële Benisty. Frantzia / Francia. 80 min

*frantsesa* *euskara, gaztelania*

Nadesh, Anamiga eta Chérifek interprete lana egiten dute Frantziara bizimodu hobe baten bila iristen diren pertsona migratzaileentzat. Egunero erbestea eta prekarietatea jasaten duten milaka pertsonen ordezkaritza txiki bat baino ez dira. Haien ahotsek lotura ikusezin bat sortzen dute han eta hemen artean, pertsonen eta haien bizitzen eta migratzaile izatearen iluntasunaren artean; eurek ere izan dituzten bizipenak, alegia. Haien lana gabe ezinezkoa litzateke elkarrizketa. Hitz entzunezinak, murmurioak, garrasiak, malkoak eta otoitzak baino ez lirateke geratuko. Eta azkenean isiltasun gorgarria.

Nadesh, Anamiga y Chérif trabajan como intérpretes de personas migrantes que llegan a Francia en busca de una vida mejor. Son solo una pequeña representación de las y los miles que cada día experimentan en primera persona el exilio y la precariedad. Sus voces tienden un enlace invisible entre el aquí y el allá, entre el mundo de las personas vivas y la oscuridad de la condición de migrante, que en su mayor parte también han experimentado. Sin su trabajo el diálogo sería imposible. Solo quedarían palabras inaudibles, murmullos, gritos, lágrimas y plegarias. Y al final un silencio ensordecedor.

## ASILOA ESKATZEN DUTENEN OINAZEA ITZULTZEA

ACNURen datuen arabera, 35,3 milioi errefuxiatu daude munduan. Gero eta jende gehiago dago bere herrialdetik irtetera behartua, bere borondatearen kontra, bizitzeko leku seguru baten bila. Espainiako Estatuan, 2023an, Barne Ministerioak nazioarteko babeserako 163.218 eskaera jaso zituen, aurreko urtean baino % 37 gehiago.

Iritsitako herrialdean nazioarteko babesaren eskaera elkarrizketa baten bidez egin ohi da. Elkarrizketa horretan, asilo eskatzaileak jazarpenaren arrazoiak azaltzen ditu. Hala, harentzat funtsezkoa da adierazten duenaren itzulpenaz arduratzen den pertsonak hark esandakoa zehatz-mehatz jasotzea. Lan zaila da, kontuan hartuta asilo eskatzailea desorientatua dagoela, hitzez adierazi behar dituela egoera traumatikoak, eta interpretea dela helmugako herrialdearekin duen lotura bakarra.

Horregatik, elkarrizketa hauetan interpreteak bitartekari lana egiten du nolabait. Bitartekaritza lana interpretazio lanaren oinarrizko printzipio etikoei jarraituz egin behar du: kalitatea, fideltasuna, apaltasuna, profesionaltasuna, konfidentzialtasuna, inpartzialtasuna, osotasuna eta enpatia. Horri dagokionez, *Nazioarteko babeserako prozedurei buruzko Europako zuzentarauaren* 15. artikuluak jarraibide batzuk ematen ditu: interpretea eskatzailearen genero berekoa izatea, uniforme militarrik ez eramatea, eta elkarrizketa asilo eskatzaileak nahiago duen hizkuntzan mantentzea. 2022an, Espainiako Estatuak 126 nazionalitate desberdinetako asilo eskatzaileak jaso zituen, eta 59 hizkuntza desberdin interpretatu edo itzuli behar izan ziren.

## TRADUCIR EL DOLOR DE QUIENES SOLICITAN ASILO

Según datos del ACNUR, en el mundo se contabilizan 35,3 millones de personas refugiadas. Cada vez hay más personas obligadas a salir de su país en contra de su voluntad, en busca de un lugar seguro para vivir. En el Estado español, en 2023 el Ministerio de Interior recibió 163.218 solicitudes de protección internacional, un 37% más que el año anterior.

La solicitud de protección internacional en el país de llegada se suele realizar a través de una entrevista, en la que la persona solicitante de asilo explica los motivos de persecución. Para esta persona, resulta fundamental que quien realiza la traducción de lo que expresa lo recoja con exactitud. Se trata de una labor complicada, si tenemos en cuenta que la persona solicitante de asilo está desorientada, debe verbalizar situaciones a veces traumáticas y la intérprete es su único nexo de unión con el país de llegada.

Por ello, la persona intérprete en estas entrevistas acaba desempeñando cierto papel de mediación. Su labor mediadora ha de ser ejercida siguiendo los principios éticos básicos del trabajo de interpretación: calidad, fidelidad, humildad, profesionalidad, confidencialidad, imparcialidad, integridad y empatía. A este respecto, apuntamos que el artículo 15 de la *Directiva europea sobre procedimientos de protección internacional* da algunas pautas: que la persona intérprete sea del mismo género que la solicitante, que no lleve uniforme militar y que mantenga la entrevista en la lengua que prefiera la solicitante de asilo. En 2022, el Estado español recibió solicitantes de asilo de 126 nacionalidades diferentes, que requirieron interpretar o traducir hasta en 59 idiomas distintos.

**SOLASALDIA / *COLOQUIO***

**Carmen las Heras:** CEAReko Itzulpen eta Interpretazio Zerbitzuko estatu arduraduna 2007tik / *responsable estatal del Servicio de Traducción e Interpretación de CEAR desde 2007*
**Birane Amar Wane:** CEAReko Itzulpen eta Interpretazio Zerbitzurako interpretea eta itzultzailea / *intérprete y traductor para el Servicio de Traducción e Interpretación de CEAR*

asteazkena / miércoles > apirilak **17** abril / **16:30**
Victoria Eugenia Antzokia



## **DESERT PHOSfate** (2023)

Mohamed Sleiman Labat. Mendebaldeko Sahara / Sahara Occidental. 58 min

*hassaniera, ingelesa* *gaztelania*

Film esperimental honetan geruza ugariko narrazioak biltzen dira elkarri lotuta; fosfatoaren, harea partikulen, landareen, eta gizaki eta mineralen desplazamenduen gainekoak, eta baita saharar indigenen bizimodu nomaden galera ere. Gainera, erresilientzia komunitarioaren adierazpen sendoak planteatzen ditu baratzeen eta artearen bidez. Filma artista saharar batek egin du, zinea egiteko eta istorioak kontatzeko bere modua deskolonizatu nahian. Hala, helburu horrekin oinarritzen da bere komunitateko elementu eta narratibetan.

Película experimental que entreteje las narraciones de múltiples capas sobre el fosfato, las partículas de arena, las plantas y el desplazamiento humano y mineral, así como la pérdida de las formas de vida nómadas de los indígenas saharauis. También plantea fuertes expresiones de resiliencia comunitaria a través de huertos y arte. La película está realizada por un artista saharaui que intenta descolonizar su modo de hacer cine y contar historias, por lo que se basa en elementos y narrativas de su comunidad.

## SAHARAR FOSFATOTIK NEKAZARITZA JASANGARRIRA MUTURREKO BALDINTZETAN

Mendebaldeko Sahara Afrikako ipar-mendebaldeko kostaldean dagoen eremua da, 1975era arte espainiar kolonia izan zena, Marokok lurraldea anexionatu zuen arte. Harrezkero, saharar herria, Fronte Polisarioak lideratua, borrokan ari da bere kontrola berreskuratzeko.

Ez da kasualitatea Marokok lurralde horretan duen interesa, oso aberatsa baita fosfato-erreserbetan. Mineral hori –urria laborategian sintetizatu ezin delako– funtsezkoa da ongarriak ekoizteko. Izan ere, “Saharako urrea” deitzen zaio. Fosfatoak Marokoko esportazioen % 20 dira –munduko erreserben hiru laurden bere kontrolpean daude– eta % 5eko pisua dute beren BPGan.

Testuinguru horretan, bi ohar azpimarratu behar dira. Lehena, mineral horren prestigioa galtzeari dagokio: azken 60 urteetan gehiegi erabili dira fosfatoak ongarri gisa mundu mailako nekazaritzan, eta lurpeko urak kutsatu eta eutrofizazio eremu zabalak sorrarazi ditu –nutrienteen gehiegizko kontzentrazioa uretan, oxigenoa gutxitzen duena–. Hala, inpaktu suntsitzailea ekarri du ingurumenean.

Bigarren oharra, berriz, saharar herriari zuzendutako txaloa da. Aljeriako errefuxiatuen kanpamentuetako derrigorrezko sedentarizazioan murgilduta –sahararren nomadismoa historikoa izan arren– beren elikagaiak ekoizteko bideari ekin diote, eta 500 baratze agroekologiko baino gehiago sortu dituzte. Hala, aurrerabide handia da hori elikaduraren subiranotasunari dagokionez, kontuan hartuta komunitate hau Nazio Batuen Elikagaien Munduko Programaren mende dagoela neurri handi batean. Baratze ekologikoak, hidroponikoak eta jasangarriak dira haienak, aukera ematen dietenak erresistentziari eusteko, hezteko, baita itxaropena elikatzeko ere.

## DEL FOSFATO SAHARAUI A LA AGRICULTURA SOSTENIBLE EN CONDICIONES EXTREMAS

El Sahara Occidental es un área situada en la costa noroeste de África, que fue colonia española hasta 1975, momento en el que Marruecos se anexionó el territorio. Desde entonces, el pueblo saharaui, liderado por el Frente Polisario, lucha por recuperar su control.

No es casual el interés de Marruecos por este territorio, el cual destaca por ser muy rico en reservas de fosfato. Este mineral, escaso en tanto no se puede sintetizar en laboratorio, es esencial para producir fertilizantes. Se le conoce como el “oro del Sahara”. Los fosfatos representan el 20% de las exportaciones de Marruecos (tres cuartas partes de las reservas en el mundo están bajo su control) y tienen un peso del 5% de su PIB.

En este contexto, dos apuntes son necesarios. El primero se refiere al desprestigio creciente del mineral. En los últimos 60 años se ha abusado de los fosfatos como fertilizantes en la agricultura a nivel mundial, contaminando las aguas subterráneas y generando amplias zonas de eutrofización (concentración excesiva de nutrientes en el agua que hace disminuir el oxigeno) con un impacto devastador en el medio ambiente.

El segundo apunte es un aplauso al pueblo saharaui. Este, abocado a una sedentarización forzosa en los campamentos de refugiados de Argelia pese a su nomadismo histórico, ha iniciado un camino hacia la producción de sus propios alimentos con la creación de mas de 500 huertos agroecológicos. Ello supone un gran avance en términos de soberanía alimentaria para una comunidad que depende en gran medida del Programa Mundial de Alimentos de Naciones Unidas. Huertos ecológicos, hidropónicos y sostenibles que permiten resistir, educar y alimentar también la esperanza.

asteazkena / miércoles > apirilak **17** abril / **16:30**
Victoria Eugenia Antzokia



## TAXIBOL (2023)

Tommaso Santambrogio. Italia. 50 min

*gaztelania, ingelesa* *gaztelania*

Kubako kaleetan zehar Lav Diaz Filipinetako zinema zuzendari ospetsua eta Gustavo Flecha bertako taxi gidaria doaz. Politikari, migrazioari, egoera sozialei eta maitasunari buruz hitz egiten dute, eta bi herrialdeetako bizitzaren erretratu historikoa sortzen duten istorio eta esperientzia oso pertsonalak kontatzen dituzte. Hizketaldi horretan, Lav Diazek Kubara egindako bidaiaren benetako arrazoia azalduko dio Gustavori: Juan Mijares Cruzen bila dabil, Marcos diktadorea erori ondoren Filipinetatik ihes egin zuen jeneralaren bila, justizia egiteko.

Por las calles de Cuba viajan el famoso director de cine filipino Lav Diaz y el locuaz taxista local Gustavo Flecha. Conversan sobre política, migración, condiciones sociales y amor, contándose historias y experiencias muy personales que crean un retrato histórico de la vida en ambos países. Durante su charla Lav Diaz le cuenta a Gustavo la verdadera razón de su viaje a Cuba: está buscando a Juan Mijares Cruz, general que escapó de Filipinas tras la caída del dictador Marcos, para hacer justicia.

## FILIPINAK ETA MARCOS FAMILIA: HISTORIA ERREPIKATU EGITEN DA

Historian zehar, herrialde batzuk dinastia eta klan familiarrek gobernatu izan dituzte edo gobernatzen jarraitzen dute. Bhutto dinastia Pakistanen edo Al Ásad Sirian bi adibide dira. Beste bat Filipinetakoa da; bertan, bere krudelkeriagatik, Ferdinand Marcosen eta bere emazte Imelda Marcosen erregimeneko diktadura aldia nabarmendu zen, 1965ean hasi eta 1986ra arte luzatu zena. “Senar-emazteen diktadurak” herrialdea arpilatu zuen eta 10.000 milioi dolarreko dirutza bildu zuen. 1972 eta 1981 bitartean Lege Martziala ezarri zuen, ordura arte indarrean egon zen Konstituzioa ezabatzea, prentsa modu basatian isilaraztea, eta oposizio politikoa jazartzea ekarri zuena. 3.257 disidente eta aktibista erail ziren eta 50.000 baino gehiago torturatu.

1986an, Ferdinand Marcos boteretik kendu zuten EDSA Iraultzarekin (Herriaren Boterearen Iraultza ere deitua). Herrialdetik presaka ihes egin zutenean, senar-emazteek konta ezin ahala bitxi eta 3.000 zapata baino gehiagoko bilduma utzi zituzten presidentearen Malacañangeko jauregian. Ferdinand Marcos hiru urte geroago hil zen, Hawaiiko erbestean.

Baina Imelda Marcos, “Burdinazko Tximeleta” izenez ezaguna, 1991n itzuli zen Filipinetara, Ferdinand Marcos Jr. semearekin batera, saga familiarrari jarraipena emateko. *Bongbong* Marcos deitua, 2022ko ekainean hauteskundeak irabazi ondoren, herrialdeko presidente egin zen semea, botoen % 59rekin. Oraindik ere bera da presidentea. Presidenteordea Sara Duterte-Carpio da, Rodrigo Duterte presidente ohi polemikoaren alaba. Bi klan familiar, errepikatzen den historian bat eginda.

## FILIPINAS Y LA FAMILIA MARCOS: LA HISTORIA SE REPITE

Hay países que, a lo largo de su historia, han estado o siguen estando gobernados por dinastías y clanes familiares. La dinastía Bhutto en Pakistán o Al Ásad en Siria son dos ejemplos. Otro es el de Filipinas, donde destacó por su crueldad el periodo de dictadura bajo el régimen de Ferdinand Marcos y su esposa Imelda Marcos, que se extendió desde 1965 hasta 1986. Esta “dictadura conyugal” saqueó el país y amasó una fortuna de 10.000 millones de dólares. Impuso una Ley Marcial entre 1972 y 1981 que supuso la supresión de la Constitución hasta entonces vigente, un silenciamiento brutal de la prensa y la persecución de la oposición política. Unas 3.257 personas disidentes y activistas fueron asesinadas y más de 50.000 fueron torturadas.

En 1986, Ferdinand Marcos fue derrocado con la Revolución EDSA (también denominada Revolución del Poder del Pueblo). En su huida precipitada del país, el matrimonio dejó en el palacio presidencial de Malacañang una gran cantidad de joyas y una colección de más de 3.000 zapatos. Ya en el exilio en Hawái, Ferdinand Marcos moría tres años después.

Pero Imelda Marcos, conocida como la “Mariposa de Hierro”, regresó a Filipinas en 1991 junto a su hijo Ferdinand Marcos Jr. para continuar con la saga familiar. Este, popularmente conocido como *Bongbong* Marcos, ganó las elecciones en junio de 2022 y accedió a la presidencia del país con un contundente resultado (59% de los votos). A fecha de hoy sigue siendo el presidente. Su vicepresidenta es Sara Duterte-Carpio, hija del polémico expresidente Rodrigo Duterte. Dos clanes familiares unidos en una historia que sigue repitiéndose.

asteazkena / miércoles > apirilak **17** abril / **19:00**
Victoria Eugenia Antzokia



## PHOTOPHOBIA
(2023)

Ivan Ostrochovský, Pavol Pekarčík. Eslovakia-Txekiar Errepublika-Ukraina / Eslovaquia-República Checa-Ucrania. 71 min

*ukrainera, errusiera* *euskara, gaztelania*

Otsaileko goiz izoztu batean, Niki 12 urteko mutikoa eta bere familia Karkoveko (Ukraina) metro-geltoki batera iritsi dira bonbardaketetatik ihes egiteko. Egun argia arriskuaren sinonimo da. Beraz, semeari debekatu egiten diote handik irtetea. Nikik neoizko argien azpian bizitzen ematen ditu hurrengo hilabeteak. Harik eta egun batean 11 urteko Vika ezagutu eta mundu berri bat zabaltzen zaion arte. Elkarrekin indarra eta kemena berreskuratuko dute aurre egiten jarraitzeko, eguzki argia berriro ikusi ahal izateko irrikaz beti.

Una gélida mañana de febrero, Niki, un niño de 12 años, y su familia llegan a una estación de metro en Járkov (Ucrania) para escapar de los constantes bombardeos. La luz del día se convierte en sinónimo de peligro, así que prohíben a su hijo salir de allí. Niki pasa los siguientes meses viviendo bajo las luces de neón. Hasta que un día conoce a Vika, de 11 años, y un nuevo mundo se abre ante él. Juntos recuperarán la fuerza y el coraje para seguir resistiendo, siempre anhelando poder volver a ver la luz del sol.

### HAURTZAROA ETA GERRA UKRAINAN

Ukrainako gerra hirugarren urtean sartu da, eta balantze latzenetako bat hauxe da, gatazkak nola eragin dien eta oraindik ere nola eragiten ari zaien herrialdeko haurrei. 2022ko otsailean gerra gogortu ondoren, salbu egoteko beren familiekin Ukrainatik atera zirenei eta oraindik atzerrian daudenei eragiten die. Era berean, gaur egun Ukrainako lurretan daudenei ere eragiten die, hau da, bertatik inoiz atera ez direnei, eta atera eta bueltan beren hiri eta herrietara itzuli direnei (itzulitakoen artean 630.000 adingabeko daude dagoeneko, Save the Children gobernuz kanpoko erakundearen arabera).

Gaur egun Ukrainan dauden haurren egoerari buruz, datu oso kezkagarriak argitaratu berri dira. Datu horien artean daude sotoetan eta lurpeko metro-geltokietan babestuta egon behar duten orduen kopurua, bonbardaketen abisu ematen duten aireko alerten eta sirenen zarata-hotsa entzun bitartean. Gerra hasi zenetik, Unicefek 4.000 eta 7.000 ordu artean zenbatu du (hau da, lau eta zazpi hilabete artean) gerraren lehen lerroan dauden hirietako haur horiek lur azpian bizi izan duten denbora. Osasun fisikoan eta mentalean horrek dituen ondorio suntsitzaileen artean nabarmentzekoa da ikaskuntzan antzematen diren hutsune nabarmenak, nekez gaindi daitezkeenak. 13 eta 15 urte bitartekoen erdia loari lotutako arazoak izaten ari da; eta 5etik batek antsietate, tristura eta fotofobia maila handiak ditu.

Munduan, egunero, 29.000 haurrek derrigorrez utzi behar dituzte atzean beren etxeak, gerrengatik edo jazarpenengatik. Guztira 50 milioi haur baino gehiago dira, inoiz izan den kopururik handiena. Kopurua bikoiztu egin da 2010. urteaz geroztik.

### INFANCIA Y GUERRA EN UCRANIA

La guerra en Ucrania ha entrado en su tercer año; y uno de los balances más demoledores se refiere a cómo la contienda ha afectado, y sigue afectando, a las niñas y niños del país. Afecta a quienes, tras el recrudecimiento de la guerra en febrero de 2022, salieron de Ucrania con sus familias para ponerse a salvo, y todavía están en el extranjero. Asimismo, afecta a quienes están en suelo ucraniano en la actualidad, bien porque nunca salieron, bien porque salieron y han regresado a sus ciudades y pueblos (la cifra de retornos alcanza ya el número de 630.000 menores, según la ONG Save the Children).

En torno a la situación de las niñas y niños que hoy están en Ucrania, se acaban de hacer públicos datos muy preocupantes. Entre ellos, está el del número de horas que se ven obligados a permanecer refugiados en sótanos y estaciones de metro subterráneas, mientras las alertas antiaéreas y las sirenas por bombardeos suenan en la superficie. Unicef contabiliza entre 4.000 y 7.000 horas (lo que equivale a entre cuatro y siete meses) el tiempo que esas niñas y niños en ciudades en primera línea de la guerra han vivido bajo tierra desde que estallara la guerra. Las repercusiones devastadoras sobre su salud física y mental incluyen grandes deficiencias de aprendizaje que serán difícilmente recuperables. La mitad de quienes tienen entre 13 y 15 años ha desarrollado problemas para dormir; y 1 de cada 5 expresa elevados niveles de ansiedad, tristeza y fotofobia.

En el mundo, cada día, 29.000 niñas y niños abandonan forzosamente su hogar por guerras o persecuciones. El total supera ya los 50 millones, el mayor número jamás registrado. La cifra se ha duplicado desde el año 2010.

**SOLASALDIA / *COLOQUIO***

**Lorena Cobas González:** Espainiako UNICEFeko Nazioarteko Programen taldeko teknikaria / *técnico del equipo de Programas Internacionales en UNICEF España*
**Yuliya Shalapko** & **Yevheniia Shekhovtsova:** Ukrainako errefuxiatu gazteak / *jóvenes refugiadas ucranianas*

osteguna / jueves > apirilak **18** abril / **16:30**
Victoria Eugenia Antzokia


© KinoElektron - Easy Riders Films

## LOST COUNTRY
(2023)

Vladimir Perišić. Frantzia-Serbia-Luxenburgo-Kroazia-Qatar / Francia-Serbia-Luxemburgo-Croacia-Catar. 98 min

*serbiera* *euskara, gaztelania*

Serbia, 1996. Miloševićen erregimenaren aurkako ikasleen manifestazioetan, Stefanek, 15 urtekoak, iraultzarik gogorrena bizi beharko du. Bere ama maiteari, gobernu ustelaren bozeramaile eta konplizeari, aurre egin behar izango dio, haren aurka altxatzen ari baitira bere lagunak.

Serbia, 1996. Durante las manifestaciones estudiantiles contra el régimen de Milošević, Stefan, de 15 años, tiene que pasar por la revolución más dura de todas. Tiene que enfrentarse a su amada madre, portavoz y cómplice del gobierno corrupto contra el que se levantan sus amigas y amigos.

## MILOŠEVIĆ DESAFIATU ZUEN HERRI-MATXINADA

Serbiaren oraintsuko historia ulertzeko Bigarren Mundu Gerraren amaierara jo behar da, 1945ean Jugoslavia sei errepublikak (Serbia, Kroazia, Bosnia eta Herzegovinaz gain, Montenegro, Mazedonia eta Eslovenia) eta bi eskualde autonomok (Voivodina eta Kosovo) osatutako federazio sozialista gisa berrantolatu zenean. Josip Broz "Tito" federazio horretako presidente komunistak talde etniko aintzak batuta mantendu zituen hainbat hamarkadatan; bere heriotzarekin batera, ordea, eztanda independentistek Jugoslavia desegitera eraman zuten 1990eko hamarkadan.

Gerra garai hartan, Slobodan Milošević serbiar presidentea, "Balkanetako harakina" goitizenez ezaguna, serbiarren nagusitasuna inposatzen saiatu zen serbiarrak zeuden edozein lurraldetan. Bere eldarnio ultranazionalistak 200.000 hildako, 2-3 milioi desplazatu, eta bortxaketa, tortura eta desagertze ugari utzi zituen.

1996an, Daytongo Akordioen osteko bake prozesu hauskorraren testuinguruan, udal hauteskundeak egin ziren Serbia, Montenegro, Kosovo eta Voivodinan. SPCk, Miloševićen alderdiak, hiri populatuenetan hauteskundeak galdu zituen, Belgrad barne. Miloševićek baliogabetu egin zituen hauteskundeak eta, hilabeteetan zehar, herritarren ehunka manifestaziok salatu zituzten hauteskunde iruzurra eta gobernatzen zuten eliteen ustelkeria. Segurtasun indarrek protestak gogor zapaldu bazituzten ere, Miloševićek bere porrota onartu behar izan zuen. Hala, Belgraden eta beste hiri batzuen, oposizioko Zajedno koalizioaren eskuetara pasatu zen gobernua.

Miloševićen amaieraren hasiera izan zen hura. 2001eko ekainean atxilotu eta Hagara eraman zuten gizateriaren aurkako krimenengatik epaitua izateko.

## LA REVUELTA POPULAR QUE DESAFIÓ A MILOŠEVIĆ

La historia reciente de Serbia se remonta al fin de la 2ª Guerra Mundial cuando, en 1945, se refundó Yugoslavia como federación socialista compuesta por seis repúblicas (además de Serbia, Croacia, Bosnia y Herzegovina, Montenegro, Macedonia y Eslovenia) y dos regiones autónomas (Voivodina y Kosovo). El presidente comunista de esta federación, Josip Broz "Tito", durante décadas contuvo unidos a los diversos grupos étnicos, pero a su muerte explosiones independentistas llevaron a la desintegración de Yugoslavia en la década de 1990.

En este periodo bélico, el presidente serbio Slobodan Milošević, apodado "el carnicero de los Balcanes", trató de imponer la supremacía serbia en cualquier territorio donde hubiera población serbia. Su delirio ultranacionalista dejó a su paso 200.000 personas muertas, entre 2 y 3 millones de desplazadas e innumerables violaciones, torturas y desapariciones.

En 1996, en el contexto del frágil proceso de paz tras los Acuerdos de Dayton, se celebraron elecciones municipales en Serbia, Montenegro, Kosovo y Voivodina. El SPC, partido de Milošević, perdió los comicios en las ciudades más pobladas, incluida Belgrado. Milošević anuló las elecciones y, durante meses, cientos de manifestaciones populares denunciaron el fraude electoral y la corrupción de las élites gobernantes. A pesar de que las protestas fueron duramente reprimidas por las fuerzas de seguridad, Milošević se vio obligado a reconocer su derrota y tanto Belgrado como otras ciudades pasaron a ser gobernadas por la coalición opositora Zajedno.

Fue el comienzo del fin de Milošević. En junio de 2001 fue detenido y trasladado a La Haya para ser juzgado por crímenes contra la humanidad.

osteguna / jueves > apirilak **18** abril / **19:00**
Victoria Eugenia Antzokia



© Penelope Chauvelot

## ÉTAT LIMITE
(2023)

Nicolas Peduzzi. Frantzia / Francia. 102 min

*frantsesa* *gaztelania*

Jamal Abdel Kader psikiatra bakarra da 400 oheko ospitale batean, Pariseko kanpoaldean. Gaixoei eskainia, ahal duen guztia egiten du haien oinazea baretzeko, haiei entzuteko eta dituzten deabruengandik babesteko. Hala ere, zerbaitek huts egiten du osasun-sistema publikoan: ez dago denbora nahikorik, langileak urriak dira, eta presio handia jasaten dute baliabide gutxiko ospitale horretan. Hala eta guztiz ere, Jamal eta lankideek borrokan jarraitzen dute beren helburua betetzeko: gorputzak eta arimak sendatzea.

Jamal Abdel Kader es el único psiquiatra en un hospital de 400 camas a las afueras de París. Dedicado a sus pacientes, hace todo lo que puede para calmar su dolor, escucharles y protegerles de sus demonios. Sin embargo algo falla en el sistema público de salud: no hay suficiente tiempo, el personal es escaso y está sometido a mucha presión en un hospital con pocos recursos. Pese a todo, Jamal y sus colegas siguen luchando para conseguir cumplir su objetivo: sanar cuerpos y almas.

### OSASUN MENTALA, KONPONDU GABEKO ARAZOA

Buru Osasuna Euskadi elkarteak emandako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko 227.775 etxetan gutxienez, osasun mentaleko arazoren bat duen pertsonaren bat bizi da. Familia horien ongizatea lortzeko, oraindik dauden oztopoak eta estigmak ezabatu behar dira. Baina, batez ere, erakundeek osasun mentalaren arretarako estrategiak ezarri behar dituzte, kalitate-estandar altuetan oinarrituta, gaixotasun mentalen arretan, prebentzioan eta detekzio goiztiarrean laguntzeko.

Egia da gaixotasun horien kontzientziazioan eta aintzatespenean emandako aurrerapausoek bidea arindu dutela. Eta egia da ere erakundeak ahaleginak egiten ari direla osasun mentalari modu egokiago batean heltzeko, Eusko Jaurlaritzak onartu berri duen 2023-2028 Euskadiko Osasun Mentaleko Estrategiak erakutsi bezala. Hala ere, oraindik asko dago egiteko. Izan ere, Osasun mentalarekin lotutako eremu askotan oraindik ere kritikatzen da baliabideen urritasuna eta baliabide horiek ekimen pribatuaren esku uzteko gero eta joera handiagoa.

Pandemiak erakutsi digu beharrezkoa dela osasun publikoaren eraldaketa sakona, orainaldira egokitzeko eta gure osasun arazo guztiei erantzun egokia emateko. Azkar bizi gara, eta gero eta exijentzia eta mehatxu gehiagoren pean, eta horrek eragin zuzena du gugan. Psikiatrian eta psikologian espezializatutako profesional gehiago behar ditugu, baina, batez ere, osasun mentalari dagokionez osasun sistema sendoa behar dugu. Zoritxarrez, gaur egun, oraindik konpondu gabeko arazoa.

### LA ASIGNATURA PENDIENTE DE LA SALUD MENTAL

Según datos manejados por la asociación Salud Mental Euskadi, en al menos 227.775 hogares de la Comunidad Autónoma del País Vasco convive alguna persona con un problema de salud mental. El bienestar de estas familias pasa por que se eliminen las barreras y los estigmas que todavía existen. Pero, sobre todo, pasa por que las instituciones implementen estrategias de atención a la salud mental basadas en altos estándares de calidad que ayuden en la atención, la prevención y la detección precoz de las enfermedades mentales.

Es cierto que los avances en la concienciación y el reconocimiento de estas enfermedades han aliviado el camino. Y no es menos cierto que, desde las instituciones, se están haciendo esfuerzos por mejorar el abordaje de la salud mental, como lo demuestra la reciente Estrategia de Salud Mental de Euskadi 2023-2028 adoptada por el Gobierno Vasco. Sin embargo, todavía queda mucho por hacer. Desde muchos ámbitos relacionados con la salud mental se sigue criticando la estrechez de recursos y la tendencia, cada vez mayor, a dejarlos en manos de la iniciativa privada.

La pandemia nos ha demostrado que es necesaria una profunda transformación de la sanidad pública, para adaptarse al presente y dar una respuesta adecuada a todos nuestros problemas de salud. Vivimos rápido y cada vez con mayores exigencias y amenazas, lo que tiene un impacto directo sobre nosotros y nosotras. Necesitamos más profesionales especialistas en psiquiatría y psicología, pero sobre todo necesitamos dotarnos de un sistema de salud fuerte en lo que a la salud mental se refiere. Desgraciadamente hoy en día todavía es una asignatura pendiente.

**SOLASALDIA / *COLOQUIO***

**José Antonio Luengo Latorre:** Madrilgo Psikologia Elkargo Ofizialeko dekano-presidentea / *decano-presidente del Colegio Oficial de la Psicología de Madrid*
**Sonja Massimo:** Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofizialeko dekano-presidentea / *decana-presidenta del Colegio Oficial de la Psicología de Gipuzkoa*

ostirala / viernes > apirilak **19** abril / **17:00**
Victoria Eugenia Antzokia

**librea gonbidapenarekin /** gratis con invitación



**Lehiaketatik kanpo /** Fuera de concurso

## **MUERTE EN AMARA** (2024)

Aitor González de Langarica. Espainia / España. 60 min *gaztelania, euskara, portugalera, ingelesa* *gaztelania*

Donostia, 1960. Jesusa Ibarrolak oinetako batzuk erosi nahi dizkio 20 hilabeteko alaba Begoñari. Utzi neskatoa bere izeba Soledaderen zaintzapean Amarako geltokian. Baina bonba batek eztanda egiten du, Begoña hilez. Justizia frankistak inor atxilotu gabe ixten du kasua, eta ahanzturan erortzen da.

Donostia, 1960. Jesusa Ibarrola quiere comprar unos zapatos a su hija Begoña, de 20 meses. Deja a la niña al cuidado de su tía Soledad en la estación de Amara. Pero estalla una bomba, matando a Begoña. La justicia franquista cierra el caso sin detener a nadie, y cae en el olvido.

**Muerte en Amara** filmak Gaizka Fernándezek eta Manuel Aguilarrek ekindako kasu baten ikerketari jarraitzen dio: 20 hilabeteko Begoña Urroz umearena, Donostiako Amara geltokian 1960an bonbaz egindako atentatu batean hildakoa. Senar-emazte gazte baten lehenengo haurra zen. Senar-emazteak, Beintza-Labaiengoak (Nafarroa), Gipuzkoara emigratu zuten bizitza hobeago baten bila. Justizia frankistak inor atxilotu gabe itxi zuen kasua.

2000. urtean, Ernest Lluchek gaurkotasunera ekarri zuen gertatutako hura, eta errebelazio polemiko bat egin zuen: Begoña ETAren lehenengo biktima izan zela jakin zuela adierazi zuen.

Ideia horri jarraituz, 2010ean, Diputatuen Kongresuak ofizialki aitortu zuen Begoña ETAren lehenengo biktima izan zela, eta aho batez onartu zuen Terrorismoaren Biktimak Babesteko Legea. Kasua behin betiko argitu zela zirudien.

Hala ere, historialari eta kazetari batzuek zalantzan jarri zuten bertsio ofizial hori, berau babesteko frogarik ez zegoelako. Hala, hipotesi alternatibo bat aditzera eman zuten: DRIL (Askapenerako Direktorio Iraultzaile Iberiarra), misterioz inguratutako erakunde hispano-portugaldar ahaztu bat, diktadura frankistaren eta salazaristaren aurkariek (Kuban eta Venezuelan erbesteratuek) osatua.

**Muerte en Amara** sigue la investigación de Gaizka Fernández y Manuel Aguilar sobre el caso de Begoña Urroz, una niña de 20 meses asesinada en un atentado con bomba en la estación de Amara de Donostia en 1960. Era la primogénita de un joven matrimonio, natural de Beintza-Labaien (Navarra), que había emigrado a Gipuzkoa en busca de una vida mejor. La justicia franquista cerró el caso sin detener a nadie.

En el año 2000 Ernest Lluch devolvió a la actualidad esta historia haciendo una polémica revelación: afirmaba haber descubierto que Begoña fue la primera víctima de ETA.

Siguiendo esta idea, en 2010 el Congreso de los Diputados reconoció oficialmente a Begoña como la primera víctima mortal de ETA, con la aprobación por unanimidad de la Ley de Protección a las Víctimas del Terrorismo. El caso parecía esclarecido definitivamente.

Sin embargo, algunos historiadores y periodistas pusieron en duda esta versión oficial, por falta de pruebas que la respaldasen. Sugerían una hipótesis alternativa: el DRIL (Directorio Revolucionario Ibérico de Liberación). Se trataba de una olvidada y misteriosa organización hispano-portuguesa, formada por opositores a las dictaduras franquista y salazarista, exiliados en Cuba y Venezuela.

**Área Audiovisual**

ostirala / viernes > apirilak **19** abril / **20:00**
Victoria Eugenia Antzokia

**BUKAERA /** CLAUSURA



**Lehiaketatik kanpo /** Fuera de concurso

## **NINA** (2023)

Andrea Jaurrieta. Espainia / España. 105 min

*gaztelania*

Hazi izan zen kostaldeko herrira itzultzea erabaki du Ninak, eskopeta bat poltsan duela eta helburu batekin: Pedrori mendekua hartzea, herriak orain omentzen duen idazle ospetsuari. Bere jaioterriarekin, iraganeko oroitzapenekin eta haurtzaroko bere lagun Blasekin berriro elkartzeak mendekua bere aukera bakarra ote den birplanteatzera eramango du. **Nina** *thriller* bat da, *western* femenino garaikide bat, non mendekuaren istorio batean uztartzen diren iragana eta oraina.

Nina decide volver al pueblo costero donde creció con una escopeta en el bolso y un objetivo: vengarse de Pedro, un famoso escritor al que el pueblo rinde ahora homenaje. El reencuentro con su lugar de origen, con sus recuerdos del pasado y con Blas, un amigo de la infancia, le harán replantearse si la venganza es su única opción. **Nina** es un *thriller,* un *western* femenino contemporáneo donde pasado y presente se funden en una historia de venganza.

## KONSENTIMENDUAREN MUGAK

**Nina**ren bidez, lehenik eta behin, konsentimenduaren mugak non dauden hitz egin nahi dut, emakume-ikuspegi aktibo batetik, harreman mota horiek duten konplexutasun psikologiko eta sozialetik. Erraz tipifikatu daiteke neska adingabe baten bortxaketa. Baina, nola zehaztu abusua itxuraz halako konsentimendu bat dagoenean?

Gogoeta horrek pertsonaien eta pelikulako denboraren eraikuntza narratiboaren lan sakon batera eraman ninduen, horrela bi gai garrantzitsuri buruz hitz egin ahal izateko: lehenengoa, abusatzaileak ez direla beti "kontuz, abusatzailea" dioen etiketa bat kopetan daramaten pertsonak; are gehiago, askotan eurek ere ez dira jabetu beren erasoaz. Historia osoan zehar konsentitu eta normalizatu izan dira portaerak –gaur egun abusuzkoak– heldu kulturadun eta boteredunen eta neska adingabe liluratuen artean. Izan ere, film hau José Ramón Fernándezen *Nina* testutik abiatzen da; hau, era berean, Chéjoven *Antxetako* pertsonaietan oinarritua. Bi testuetan, Nina, boteredun gizon batek engainatua, harengandik tratu txarrak jasoa eta abandonatua, bihotza erdiratuta itzultzen da herrira; baina maitasunagatik barkatzen du, eta sufrimendu horri esker aktore hobea izaten ikasi duela esaten du. Horrek bigarren gaira narama: zorionez, garaiak aldatzen ari dira, eta pertsona gisa eraiki garen egitura sozialak berrikusten eta zalantzan jartzen hasi gara. Hala, denborazko dikotomia horretan mugitzen da **Nina**ren istorioa.

Gizartearen, herrien isiltasunaz –isiltasun konplizea edo, nahi gabe, epela–, lotsa edo erruagatik biktimez hitz egiteko beldurraz, eta zauriak barrutik zabaltzen diren moduaz ere hitz egiten du filmak. Gizartean dauden desberdintasunez eta baldintzatzen gaituzten moduez, promesez, amets hautsiez... ere hitz egiten du, eta hori guztia sinbolismo zinematografikoarekin etengabe jolastuz egiten dut.

Eta hori guztia mendeku istorio batean, non emakume bat, eskopeta eskuan duela, kontuak ematera datorren *western* estilo puruenean.

## LOS LÍMITES DEL CONSENTIMIENTO

A través de **Nina** ante todo quiero hablar sobre dónde están los límites del consentimiento desde un punto de vista femenino activo, desde la complejidad psicológica y social que entraman este tipo de relaciones. Es fácil tipificar una violación de una menor, pero, ¿cómo delimitar el abuso cuando hay un aparente consentimiento?

Esta reflexión me llevó a un trabajo en profundidad de los personajes y de la construcción narrativa del tiempo en la película para poder hablar así de dos puntos importantes: el primero, que los abusadores no siempre son personas que llevan una etiqueta en la frente que dice "peligro, abusador"; es más, muchas veces ellos mismos no han sido conscientes de su propia agresión. Durante toda la historia se han consentido y normalizado comportamientos –a día de hoy abusivos– entre adultos cultos y con poder y menores embelesadas. De hecho, esta película parte del texto *Nina* de José Ramón Fernández, que a su vez se basa en los personajes de *La gaviota* de Chéjov. En ambos textos Nina, quien ha sido engañada, maltratada y abandonada por un hombre con poder, vuelve al pueblo rota, pero perdona por amor y dice que gracias a ese sufrimiento ha aprendido a ser mejor actriz. Esto me lleva al segundo punto: afortunadamente los tiempos están cambiando y estamos comenzando a hacer una revisión y un cuestionamiento de las estructuras sociales en las cuales nos hemos construido como personas. Es en esta dicotomía temporal donde se mueve la historia de **Nina**.

La película habla también del silencio cómplice o involuntariamente cobarde de la sociedad, de los pueblos, del miedo a hablar de las víctimas por vergüenza o culpa y de cómo las heridas van creciendo por dentro. Habla de desigualdades sociales y de cómo nos pueden condicionar, de promesas, de sueños rotos... y lo hago jugando constantemente con el simbolismo cinematográfico.

Y todo ello en una historia de venganza, donde una mujer con una escopeta viene a rendir cuentas al más puro estilo *western*.

**Andrea Jaurrieta**


GANADORA
27 FESTIVAL DE MÁLAGA
SECCIÓN OFICIAL LARGOMETRAJES
PREMIO DE LA CRÍTICA
PATRICIA LÓPEZ ARNAIZ es
D'A FESTIVAL CINEMA BARCELONA
PELÍCULA DE CLAUSURA
DARÍO GRANDINETTI
AINA PICAROLO
NINA
una película de ANDREA JAURRIETA
10 DE MAYO SOLO EN CINES

TABAKALERA

## ZINEMA ETA MEMORIA

Mugimendudun irudiek Historia, Politika edo/eta Kontzientzia sortzeko duten ahalmena balioan jartzen duen sail bat.

## CINE Y MEMORIA

Una sección que pone en valor el poder de las imágenes en movimiento para generar Historia, Política y/o Conciencia.

larunbata / sábado > apirilak **13** abril / **19:00**

### LA MADRE DE TODAS LAS MENTIRAS
(*The Mother of All Lies*, 2023)

Asmae El Moudir. Maroko-Saudi Arabia-Qatar-Egipto / Marruecos-Arabia Saudí-Catar-Egipto. 97 min

*arabiera* *gaztelania*



**Lehiaketatik kanpo /** Fuera de concurso

© Insightfilms

Etxe-aldaketa bat abiapuntu gisa hartuta, Asmae El Moudir zinemagile marokoarrak bere haurtzaroko argazki bakar bat zergatik duen jakin nahi du. Senide, lagun eta bizilagunekin egindako elkarrizketen eta buztinezko irudiak ageri diren bere auzoko maketa baten bidez, ehunka hildako eta errepresaliatu utzi zituzten 1981eko Casablancako istiluen aztarnekin topo egiten du El Moudirrek, memoria indibidualaren eta kolektiboaren arteko lotura aztertzeko.

Con una mudanza como punto de partida, la cineasta marroquí Asmae El Moudir intenta descubrir por qué solo conserva una foto de su infancia. A través de entrevistas con familiares, amigas y vecinos y de una maqueta de su barrio por la que deambulan figuras de arcilla, El Moudir se topa con las huellas que dejaron los disturbios de Casablanca de 1981, con un saldo de centenares de personas muertas y represaliadas, para explorar la relación entre la memoria individual y la colectiva.

asteazkena / miércoles > apirilak **17** abril / **19:00**

### SUBJECT (2022)

Jennifer Tiexiera, Camilla Hall. AEB / EEUU. 93 min

*ingelesa* *gaztelania*



**Lehiaketatik kanpo /** Fuera de concurso

© Zachary Shields

**Subject** filmak bizitza propioa pantaila batean partekatzeak adierazten duen bizi-esperientzia kontatzen du, **The Staircase**, **Hoop Dreams**, **The Wolfpack**, **Capturing the Friedmans** eta **The Square** dokumentaletako protagonisten testigantzen bidez. Egunez egun, mikroskopio baten luparen azpian egoteak haien bizitzetan zer eragin izan zuen aztertzen du filmak, eta hausnarketa bat egiten du dokumental bat filmatzeko osagai etikoen eta horrek dakarren erantzukizunaren inguruan.

**Subject** cuenta la experiencia vital que supone compartir la vida propia en una pantalla a través de los testimonios de protagonistas de destacados documentales como **The Staircase**, **Hoop Dreams**, **The Wolfpack**, **Capturing the Friedmans** y **The Square**. La película analiza qué supuso para sus vidas el hecho de estar día tras día bajo la lupa de un microscopio y reflexiona sobre los componentes éticos y la responsabilidad inherente en el hecho de rodar un documental.

osteguna / jueves > apirilak **18** abril / **19:00**

### DIEU EST UNE FEMME (2023)

Andrés Peyrot. Frantzia-Suitza-Panama / Francia-Suiza-Panamá. 85 min

*gaztelania*



**Lehiaketatik kanpo /** Fuera de concurso

1975ean, Pierre-Dominique Gaisseau, Oscar saria irabazitako zuzendari frantsesa, Panamara doa kuna komunitatea filmatzera, non sakratuak diren emakumeak. Han urtebetez bizi da emaztearekin eta Akiko alabarekin batera. Azkenean dirurik gabe geratzen da, eta bankuak erroilu grabatuak konfiskatzen dizkio. 50 urte geroago, kuna emakumeak eta gizonak zain daude “beren” filma ikusteko, belaunaldi berriei transmititu zaien kondaira, alegia. Egun batean, kopia bat agertzen da Parisen.

En 1975 el director francés ganador de un Oscar Pierre-Dominique Gaisseau viaja a Panamá para filmar a la comunidad kuna, donde las mujeres son sagradas. Junto con su mujer y su hija Akiko viven allí durante un año. Finalmente se quedan sin dinero y el banco confisca los rollos grabados. 50 años después, las mujeres y hombres kuna siguen esperando para ver “su” película, una leyenda que ha pasado a las nuevas generaciones. Un día, una copia aparece en París.

astelehena / lunes > apirilak **8** abril / **19:30**
Cines Príncipe

**librea gonbidapenarekin /** gratis con invitación

KRESALA ZINEKLUBA

## THE TOWER (2018)

Mats Grorud. Norvegia-Frantzia-Suedia / Noruega-Francia-Suecia. 80 min

*arabiera* *euskara*

Beirut, Libano, gaur egun. Wardi neska palestinar bat da, hamaika urtekoa, eta bere familiarekin bizi da jaio zeneko errefuxiatuen esparruan. Bere birraitona maitea, Sidi, han ezarritako aurrenetako bat izan zen, 1948an bere etxetik bota zutenetik. Sirik bere bilobari Galileako haren etxe zaharraren giltzak ematen dizkion egunean, neska beldur da hark ez ote duen galdu egunen batean itzultzeko itxaropena. Esparruan, aitonarengan itxaropena pizten saiatu bitartean, testigantzak jasotzen dihardu Wardik belaunaldi batek baino gehiagok osatutako bere senideen artean.



**Lehiaketatik kanpo /** Fuera de concurso

Beirut, Líbano, en la actualidad. Wardi es una niña palestina de once años que vive con su familia en el campo de personas refugiadas donde nació. Su querido bisabuelo Sidi fue uno de los primeros que se estableció allí tras su expulsión de su hogar en 1948. El día que Sidi le da a su bisnieta la llave de su antigua casa de Galilea, ella tiene miedo de que haya perdido la esperanza de volver algún día. Mientras trata de encontrar la esperanza de Sidi por el campo, Wardi recoge testimonios de sus familiares de varias generaciones.

---

osteguna / jueves > apirilak **11** abril / **19:00**
Antzoki Zaharra / Teatro Principal

**librea gonbidapenarekin /** gratis con invitación

bidez bide

## LUCES EN SOMBRA (2024)

Ione Atenea. Espainia / España. 45 min

*gaztelania*

Emakume bat ibaiaren ondotik paseatzen ari da, beste emakume bat egongelan bere poema irakurtzen ari da. Emakume bat itsasoan sartzen ari da, beste bat leiho txikiak behatzen ari da. Beren egungo bizitza kontatzen dute, eta ustezko lan-aukera desafiatzaile eta konplexu baten xehetasunak partekatzen dituzte. Lida, Candida, Katia, Silvia, Rosa Mari eta Helenak entzun nahi ez den errealitatea deskribatzen dute, errealitate deserosoa, emakume zaintzaileena, aipatzen ez den horiena. Beren kontakizunean desberdintasun estruktural guztiak eta aurre egin behar dieten hutsune legal eta moral guztiak jasotzen dira. Asko hitz egingo dugun arazo baten icebergaren tontorra. Itzalean dauden argiak dira haiek, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaileak.



**Lehiaketatik kanpo /** Fuera de concurso

Una mujer pasea al lado del río, otra lee su poema en el salón. Una mujer se mete en el mar, otra observa ventanitas. Relatan su vida actual, compartiendo los detalles de una supuesta oportunidad laboral desafiante y compleja. Lida, Cándida, Katia, Silvia, Rosa Mari y Helena describen la realidad que no se quiere escuchar, la incómoda, la de las cuidadoras, la que no se nombra. Su relato incluye todas las desigualdades estructurales y los vacíos legales y morales a los que se enfrentan. La punta del iceberg de un problema del que hablaremos mucho. Ellas son las luces en sombra, cuidadoras de personas en situación de dependencia.

## HAUR ETA GAZTEENTZAKO FILMAK

Ikastetxeei giza eskubideen inguruan lan egiteko eskainitako film luzeak. Pelikulen gaia lantzeko gida didaktikoak ere banatuko dira (jaialdiaren webgunean ikus daitezke).

## PELÍCULAS INFANTILES Y JUVENILES

Largometrajes ofrecidos a los centros educativos para trabajar sobre los derechos humanos. Al visionado se añaden unas guías didácticas preparadas sobre cada una de las películas, que se pueden ver en la web del festival.

---

### KURRIN (*Knor*, 2022)

Mascha Halberstad. Herbehereak / Países Bajos. 72 min

*euskara*



Ikusi 7. orrialdea

Véase página 7

---

### DOUNIA ETA ALEPOKO PRINTZESA
(*Dounia et la princesse d'Alep*, 2022)

Marya Zarif, André Kadi. Kanada-Frantzia / Canadá-Francia. 73 min

*euskara*



Esku ahurrean hazi batzuk hartuta, 6 urteko Douniak Alepo hiritik alde egingo du. Alepoko printzesaren laguntzaz mundu berri batera abiatuko da, erronkaz beteta egongo dena. Animazio atmosferiko eta onirikoa, soinu-banda oso iradokitzailea duena eta Marya Zarif artista eta idazlearen ipuin batean oinarrituta.

Con unas cuantas semillas de neguilla en la palma de la mano, Dounia, de 6 años, abandona la ciudad de Alepo. Con la ayuda de la princesa de Alepo, viaja hacia un nuevo mundo que estará lleno de desafíos. Una animación atmosférica y onírica con una banda sonora muy sugerente, basada en un cuento de la artista y escritora Marya Zarif.

---

### 20.000 ESPECIES DE ABEJAS
(2023)

Estibaliz Urresola Solaguren. Espainia / España. 129 min

*euskara, gaztelania* *gaztelania*



Cocó, zortzi urtekoa, ez da moldatzen besteek berarengandik espero dutenaren aurrean, eta ez du ulertzen zergatik. Bere inguruko guztiek Aitor deitzen diote behin eta berriz, baina ez du bere burua izen horretan ezagutzen. Amak, Anek, oporrak aprobetxatuko ditu hiru seme-alabekin bere amaren etxera joateko. Bertan bizi dira Lita ama eta Lourdes izeba, erleen hazkuntzan murgildua.

Cocó, de ocho años, no encaja en las expectativas del resto y no entiende por qué. Todos a su alrededor insisten en llamarle Aitor pero no se reconoce en ese nombre ni en la mirada de los demás. Su madre Ane, sumida en una crisis profesional y sentimental, aprovechará las vacaciones para viajar con sus tres hijos a la casa materna, donde reside su madre Lita y su tía Lourdes, estrechamente ligada a la cría de abejas y la producción de miel.

Laguntzaileak
*Colaboran*

GAZTEFILM-FEST · zinhezba · KALAKALAB · TABAKALERA

## GAZTE EPAIMAHAIAREN SARIA FILM LABUR ONENARI

Epaimahai Gazteak Laburmetraia Onenaren Saria ematen du urtero, 3.000 €-koa. UPV/EHU, Deusto Unibertsitatearen eta Mondragon Unibertsitatearen laguntzarekin.

## PREMIO DEL JURADO JOVEN AL MEJOR CORTOMETRAJE

El Jurado Joven otorga cada año un Premio al Mejor Cortometraje, dotado con 3.000 €. Con la colaboración de la UPV/EHU, la Universidad de Deusto y Mondragon Unibertsitatea.



(2023) **Yellow**

---

## IKUSLEEN SARIA FILM LUZE ONENARI

## PREMIO DEL PÚBLICO AL MEJOR LARGOMETRAJE



© Nico de Assas

(2023) **Las buenas compañías**

---

## AMNESTY INTERNATIONAL SARIA

Amnesty International munduko mugimendu bat da, demokratikoa eta independentea. 10 milioitik gora bazkide, aktibista eta jarraitzaile ditu, injustizia gai pertsonaltzat hartzen dutenak. Munduko ia herrialde guztietan dihardu, pertsona orok bere giza eskubideak gauzatu ahal izan ditzan.

Amnesty Internationalak erabateko independentzia ekonomikoz eta politikoz garatzen du bere lana. Gobernuen dirulaguntzak eta alderdi politikoen donazioak jasotzeari uko egitea erabaki duen erakundea da, bere inpartzialitatea eta ekintzarako askatasuna babestearren.

Zinea tresna ezin hobea izan daiteke giza eskubideen zerbitzura. Zineak beti jaso izan ditu, bere hastapenetatik, pertsonen duintasuna erasotzen duten injustiziak. Horrexegatik eman dio bere babesa Amnesty Internationalek Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiari, giza eskubideen defentsan bereziki laguntzen duen film luze bati Amnesty International Saria eskainiz. Amnesty Internationaleko kideek eta ikus-entzunezko profesionalek osatutako epaimahaiak erabakitzen du Saria.

## PREMIO AMNISTÍA INTERNACIONAL

Amnistía Internacional es un movimiento mundial, democrático e independiente, con más de 10 millones de socios y socias, activistas y simpatizantes que se toman la injusticia como algo personal. Actúa en casi todos los países del mundo para que todas las personas puedan disfrutar de sus derechos humanos.

Amnistía Internacional desarrolla su trabajo con absoluta independencia económica y política. Es una organización que ha optado por renunciar a las subvenciones de gobiernos y a las donaciones de partidos políticos con el objetivo de preservar su imparcialidad y libertad de acción.

El cine puede ser una fantástica herramienta al servicio de los derechos humanos. El cine siempre se ha hecho eco, desde sus inicios, de las injusticias que atentan contra la dignidad de las personas. Por ello, Amnistía Internacional brinda su apoyo al Festival de Cine y Derechos Humanos de San Sebastián con la entrega del Premio Amnistía Internacional a un largometraje por su especial contribución a la defensa de los derechos humanos. El Premio es fallado por un jurado integrado por miembros de Amnistía Internacional y profesionales del sector audiovisual.

### Epaimahaia / Jurado

- **Ramón Agirre**. Antzerki, zinema eta telebistako aktorea / *Actor de teatro, cine y televisión*
- **Izaskun Arandia**. Productora, guionista y directora de cine / *Ekoizlea, gidoilaria eta zinema zuzendaria*
- **Imanol Barrenetxea**. Amnesty Internationaleko Donostia taldeko kidea eta Helduen Hezkuntzako irakaslea / *Miembro del grupo Donostia de Amnistía Internacional y profesor de Educación de Personas Adultas*
- **Ana Barrera**. Madrigo Amnesty Internationaleko Latinoamerikako taldearen koordinatzailea eta Zuzenbidean lizentziaduna / *Coordinadora del equipo de América Latina de Amnistía Internacional Madrid y licenciada en Derecho*
- **Alberto Ruiz de Olano**. Amnesty Internationaleko eta Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko kidea / *Miembro de Amnistía Internacional y de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*

AMNESTY INTERNATIONAL



(2023) **The Lost Souls of Syria**

bitez translating worlds

desde since 1985etik

AENOR SERVICIOS DE TRADUCCIÓN ISO 17100

AENOR GESTIÓN DE LA CALIDAD ISO 9001

IQNet CERTIFIED MANAGEMENT SYSTEM






© María Clauss

Okendo K. E.
apirilak **16** abril - ekainak **15** junio
astelehenetik ostiralera / de lunes a viernes:
**10:00 – 14:00 / 16:00 – 20:30**
larunbatak eta zubiak / sábados y puentes:
**10:00 – 14:00 / 16:30 – 20:00**
igandeak eta jaiegunak / domingos y festivos:
**itxita / cerrado**

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN Lankidetza Cooperación

MÉDICOS DEL MUNDO · Premio Luis Valtueña Fotografía humanitaria

## 26. Luis Valtueña Nazioarteko Saria Argazkigintza Humanitarioa

Munduko Medikuek 1997az geroztik emandako sari prestigiodun honek urtero mundu osoan arazo sozialak, bidegabekeriak, eta giza eskubideen urraketak, modu egiazkoan eta hunkigarrian erakusten dituzten pertsonen argazki-bikaintasuna aitortzen du.

26. edizioak 5 fotokazetariren lana jasotzen du: **María Clauss** irabazlea, **Nazik Armenakyan**, **Santi Palacios** eta **Federico Ríos** finalistak eta **Sáshenka Gutiérrez**en aipamen berezia.

## 26° Premio Internacional Luis Valtueña Fotografía Humanitaria

Este prestigioso premio, otorgado por Médicos del Mundo desde 1997, reconoce anualmente la excelencia fotográfica de quienes retratan de forma veraz e impactante diferentes problemáticas sociales, injusticias y vulneraciones de los derechos humanos en todo el mundo.

La 26° edición recoge el trabajo de 5 fotoperiodistas: la ganadora **María Clauss**, los y las finalistas **Nazik Armenakyan**, **Santi Palacios** y **Federico Ríos** y mención especial para **Sáshenka Gutiérrez**.

---

apirilak **16** abril > **(17:15 / 19:00)** *gaztelania*

**BISITA GIDATUAK / VISITAS GUIADAS**

**Santi Palacios**

## Buchako sarraskia

Bucha hiria, Kievetik oso gertu, Errusiako indarrek Ukrainaren inbasioan egindako ankerkerien sinboloetako bat bezala pasako da historiara. Santi Palaciosen argazki-saiakerak errusiar tropak irten eta berehala sortutako sentsazioak eta irudiak jasotzen ditu, gerraren egunerokotasunaren izugarrikeria atzematen du eta gatazkaren hondamena eta krudelkeria transmititzen.

## La masacre de Bucha

La ciudad de Bucha, muy cerca de Kiev, pasará a la historia como uno de los símbolos de las atrocidades perpetradas por las fuerzas rusas en la invasión de Ucrania. El ensayo fotográfico de Santi Palacios recoge las sensaciones e imágenes inmediatamente después de la salida de las tropas rusas, captura el horror de lo cotidiano en medio de una guerra y transmite la desolación y crudeza de la contienda.

*Lekuak mugatuak. Beharrezkoa izen-ematea / Plazas limitadas. Inscripción en:*
**lankidetza@donostia.eus / 943 48 14 71**

---

apirilak **22** abril > **19:00** *gaztelania*

**HITZALDIA / CONFERENCIA**

**Ucrania ante un presente y un futuro plagado de obstáculos**

**Jesús A. Núñez Villaverde**

Gatazkei eta Ekintza Humanitarioaren ikasketen Institutuko (IECAH) zuzendarikidea da eta Pontifica Comillas Unibertsitateko Nazioarteko Harremanetako irakaslea.

Codirector del Instituto de Estudios sobre Conflictos y Acción Humanitaria (IECAH) y profesor de Relaciones Internacionales en la Universidad Pontificia Comillas.



© Igone Mariezkurrena

Aiete K. E.
apirilak **12** abril – ekainak **9** junio
asteartetik ostiralera / de martes a viernes: **16:00 – 20:30**
larunbatak / sábados: **10:00 – 14:00 / 16:30 – 20:00**
igandeak / domingos: **10:00 – 14:00**
astelehenak eta jaiegunak / lunes y festivos: **itxita / cerrado**

## PAKISTAN: INDUSEN IBAIBIDEAK

Donostia Kulturak **Pakistan: Indusen ibaibideak** erakusketa aurkezten du. Bertan, **Igone Mariezkurrena** kazetari eta antropologoak herrialde horretara egindako hainbat bidaiatan behatu eta dokumentatutako errealitateen berri aurki daiteke. Guztiek dute zerikusia aldaketa klimatikoak Indus ibaiaren arroan bizi diren jendeen bizitzetan duen inpaktuarekin eta horren ondorio sozialekin.

Fotokazetaritza eta antropologia lan honek Indusen ubide horiek hartu ditu hari gisa herrialdearen erradiografia sozial bat egiteko. Bertatik bertara landa-lanean dokumentatutako testigantzak eta argazkiak dira erakusketaren eduki nagusia. Kaltetuen ahotsa ez ezik, adituen ekarpenak (ikerlariak, irakalseak, giza eskubideen aldeko aktibistak) eta azaltzen diren errealitateak dagokien testuinguruan kokatzeko lagungarriak diren datu kontrastatuak ere aurki daitezke.

Pakistan kasu paradigmatikoa da ulertzeko zenbat eta nola oztopatzen duen aldaketa klimatikoak herrialde baten garapen osoa. Izan ere, munduko karbono isurketen %1 baino gutxiago igorri arren, boretze globalak gehien kaltetzen dituen 10 herrialdeetako bat da Pakistan. Aldiz, ez du baliabide ekonomiko, material ezta egiturazkorik ere egoerari aurre egiteko.

## PAKISTÁN: LOS CAUCES DEL INDUS

Donostia Kultura presenta la exposición **Pakistán: los cauces del Indus.** En la muestra se puede encontrar un reflejo de las realidades observadas y documentadas por la periodista y antropóloga **Igone Mariezkurrena** durante sus viajes a dicho país. Todas ellas giran en torno al impacto que causa el cambio climático en las vidas de las gentes que habitan la cuenca del río Indus.

El trabajo de antropología y fotoperiodismo que se muestra ha tomado como hilo conductor los cauces del río Indus para elaborar una radiografía social del país. Los testimonios y fotografías documentadas sobre el terreno son el contenido principal de la exposición. Además de la voz de las personas afectadas, se pueden encontrar, entre otros, aportaciones de personas expertas (investigadores/as, profesorado, activistas a favor de los derechos humanos) y datos contrastados que ayudan a contextualizar los casos.

Pakistán es un caso paradigmático para entender cuánto y cómo el cambio climático obstaculiza el pleno desarrollo de un país. De hecho, con menos del 1% de las emisiones mundiales de dióxido de carbono, Pakistán es uno de los 10 países más afectados por el calentamiento global. Sin embargo, carece de recursos económicos, materiales y estructurales para hacerle frente.




Victoria Eugenia Antzokia (Okendo plaza)
apirilak **12-19** abril
astelehenetik ostiralera / de lunes a viernes: **17:00 – 20:00**
larunbata eta igandea / sábado y domingo: **11:00 – 14:00 / 17:00 – 20:00**

## ARTEA ETA GIZA ESKUBIDEAK, HAUR ETA GAZTEEN 20. EKITALDIA

6 eta 18 urte bitarteko haur eta gazteek egindako marrazki eta muralen erakusketa, Donostiako Udaleko Giza Eskubideen arloak antolatutako Artea eta Giza Eskubideen Haur eta Gazteen 20. ediziorako.

Aurten, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak 75 urte jada beteta dituen honetan, gure ekitaldiaren 20. edizioa dugu. Zenbaki borobilak izanda, gai berezi bati heldu nahi izan diogu: 29. artikuluan aipatzen diren komunitatearekiko betebeharrak hain zuzen. Izan ere, gure eskubideak ez dira mugagabeak eta erantzukizun eta betebeharrak ere baditugu giza eskubideetaz gozatu ahal izateko. Hala adierazi dute 1300 lan baino gehiagoren bidez aurtengo  partehartzaile izan diren 2000 pertsona baino gehiagok.

Sari banaketa igandean, **apirilaren 14an**, egingo da Udaletxeko Udalbatza aretoan.

## 20ª EDICIÓN INFANTIL Y JUVENIL DE ARTE Y DERECHOS HUMANOS

Exposición de dibujos y murales realizados por niños, niñas y jóvenes de 6 a 18 años para la 20ª edición Infantil y Juvenil de Arte y Derechos Humanos, organizada por el área de Derechos Humanos del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián.

Este año, habiéndose cumplido el 75º aniversario de la Declaración Universal de los Derechos Humanos, nos hallamos en nuestra 20ª edición. Por ello, hemos propuesto un tema especial: el deber hacia la comunidad que se menciona en el artículo 29. De hecho, nuestros derechos no son ilimitados, tenemos una responsabilidad y unos deberes para que sea posible disfrutar de los derechos humanos, y así lo han reflejado mediante más de 1.300 obras las alrededor de 2.000 personas participantes este año.

La entrega de premios se realizará el domingo **14 de abril** en el Salón de Plenos del Ayuntamiento.




Udal Liburutegi Nagusia / Biblioteca Central (Alderdi Eder)
apirilak **10** abril – maiatzak **4** mayo
astelehenetik ostiralera / de lunes a viernes: **10:00 – 20:30**
larunbatak / sábados: **10:00 – 14:00 / 16:30 – 20:00**
igandeak / domingos: **itxita / cerrado**

## BALOREAK

**Baloreak** erakusketa **Nerea Kortabitarte** kazetari donostiarrak idatzitako eta hamabi emakume gipuzkoarrek ilustratutako izen bereko liburuaren isla da: **Ane Garmendia, Jone Taberna, Julia Lasa, June Martin, Maialen Arocena, Maore Sagarzazu, Nerea Bermejo Bermi, Naiara Goikoetxea, Noelia Sierra NoEz, Patri Taberna, Sara Essery** eta **Zuriñe Uriarte**. Liburuaren hitzaurrea **Noelia Lorenzo Pino** idazleak sinatu du.

**Baloreak** ibilbide poetiko bat da, hamabi emakumeren ilustrazioak eta hamabi balio unibertsal biltzen dituena. Hitzaren iraultza isilaren bidez, Bidasoa ibaiko migratzaileen drama aditzera ematen du.

La exposición **Baloreak** es un reflejo del libro homónimo escrito por la periodista donostiarra **Nerea Kortabitarte** e ilustrado por doce mujeres guipuzcoanas: **Ane Garmendia, Jone Taberna, Julia Lasa, June Martin, Maialen Arocena, Maore Sagarzazu, Nerea Bermejo Bermi, Naiara Goikoetxea, Noelia Sierra NoEz, Patri Taberna, Sara Essery** y **Zuriñe Uriarte**. El prólogo del libro está firmado por la escritora **Noelia Lorenzo Pino**.

**Baloreak** es un recorrido poético a través de las ilustraciones de doce mujeres y doce valores universales. Transita el drama de los migrantes en el río Bidasoa a través de la revolución silenciosa de la palabra.




Hegazti migratzaileak bezalakoak gara: berezkoa dugu mugitzea. Hala egin zuten gure arbasoek, eta gaur egun ere munduak mugitzen jarraitzen du. Hegan, igerian, oinez… Batzuetan, etxetik urrun joaten gara onik egoteko, edo nahi edo merezi dugun bizitza horretara hurbiltzeko. Bizitzeko habia bat aurkitu duten hiru hegazti atsegin hauek bezala. Zein ederrak, ezta?

Har ezazu parte MUGI TÚ *online* joko dibertigarrian, eta jakin zer dagoen goizero croissanta saltzen dizun pertsonaren atzean; ezagutu egunero gainditu behar izaten dituzun amarruak, edo jakin zer dagoen zure esku gizarte irekiagoak eta solidarioagoak eraikitzeko.

Parte-hartzaile guztien artean 5 bonu zozkatuko ditugu, Donostiako kontsumo eraldatzailearen sareko (Saretuz) saltokietan gastatzeko.

---

Somos como las aves migratorias: movernos está en nuestra naturaleza. Nuestros antepasados lo hicieron y hoy el mundo sigue en movimiento. Volamos, nadamos, caminamos… A veces nos vamos lejos de casa para estar a salvo, o para acercarnos a la vida que deseamos o merecemos. Como estas tres simpáticas aves que han encontrado un nido en el que instalarse. Qué majas, ¿no?

Participa en el divertido juego *online* MUGI TÚ y conoce qué hay detrás de la persona que te vende el cruasán cada mañana, descubre los trampantojos a los que te enfrentas cada día o lo que está en tus manos para construir sociedades más abiertas y solidarias.

Entre todas las personas participantes sorteamos 5 bonos para gastar en comercios de la red de consumo transformador de Donostia (Saretuz).

www.labur.eus/mugitu2024
www.ongdeuskadi.org
www.zinemaetagizaeskubideak.eus

***MONOLOGOA***




asteazkena / miércoles > apirilak **10** abril / **19:00**
Antzoki Zaharra / Teatro Principal

**librea gonbidapenarekin /** gratis con invitación

## Españul (Lamine Thior)

Aktoreak bere jatorria kontatuko du, Senegaletik hasi eta Algeciraserainokoa, eta nola pasatu zen “ume beltz maitagarria” izatetik “beltz heldu kriminalizatua” izatera. Horrekin jabetu zen, lehen aldiz, arrazakeriaren eta fetitxizazioaren existentziaz, eta ohartu zen fenomeno horiek etengabeak direla.

5.000 km-ko bidaia bat egitera gonbidatzen zaitugu, zure besaulkitik mugitu gabe. Sarrera doan. Ez zaitez batere gabe geratu!

---

El actor cuenta sus orígenes desde Senegal a Algeciras, así como el paso de ser un “niño negrito adorable” a un “negro adulto criminalizado”; su primera conciencia sobre la existencia del racismo y fetichización constante.

Te invitamos a un viaje de 5.000 km sin moverte de tu butaca.
Entrada gratuita, ¡no te quedes sin ella!

Antolatzailea *Organiza* — EUSKADIKO GGKEen KOORDINAKUNDEA / COORDINADORA de ONGD EUSKADI

Babesleak *Apoyan* — DONOSTIA SAN SEBASTIÁN Lankidetza Cooperación · Gipuzkoako Foru Aldundia · ETORKIZUNA ORAIN · LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL AGENTZIA / AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN Y SOLIDARIDAD · EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO



© Rodri Minguez

asteartea / martes > apirilak **9** abril / **19:00**
Victoria Eugenia Antzokia (Klub Aretoa)

*gaztelania*

Antolatzailea
*Organiza*

AMNESTY INTERNATIONAL

# PROTESTAR NO ES UN CRIMEN. LA CRECIENTE CRIMINALIZACIÓN DE LA DESOBEDIENCIA CIVIL PACÍFICA

Desobedientzia zibil baketsua protesta egiteko modu legitimoa da, biltzeko eta adierazteko askatasunaren eskubideak babestua. Mundu osoko aktibistek erabiltzen duten tresna da, interes sozial handiko gaien eta giza eskubideen arazoen inguruan herritarren arreta erakartzeko.

Espainiako estatuan, etxebizitza-eskubidearen aldeko aktibistek, aktibista antimilitaristek edo klimaren aldeko aktibistek indarkeriarik gabeko ekintza zuzenetara jo dute kontzientzia sortzeko, desadostasun soziala edo politikoa adierazteko, edo legedian aldaketak bultzatzeko. Hala ere, ekintza horiek gero eta kriminalizazio handiagoari aurre egiten ari zaizkio, terrorismoa edo erakunde kriminala bezalako delitu larriengatiko atxiloketei eta akusazioei, besteak beste.

Horrelako karguak protesta baketsuetako ekintzetan parte hartzen dutenen aurka aurkezteak adierazteko eta biltzeko askatasuna bidegabe mugatzea dakar, eta disuasio efektua izan dezake, kontuan hartuta horrek mehatxu argia egiten diola protesta egiteko eskubideari.

La desobediencia civil pacífica es una forma legítima de protesta, amparada por el derecho a la libertad de reunión y de expresión. Activistas en todo el mundo recurren a esta herramienta en un intento por llamar la atención de la ciudadanía sobre cuestiones de elevado interés social y problemáticas de derechos humanos.

En el Estado español, activistas por el derecho a la vivienda, activistas antimilitaristas o activistas por la defensa del clima han recurrido a las acciones directas no violentas para generar conciencia, expresar disconformidad social o política o impulsar cambios en la legislación. Sin embargo, estas acciones están enfrentando una creciente criminalización, a través de detenciones y acusaciones por delitos graves, como terrorismo u organización criminal.

La presentación de este tipo de cargos contra participantes en acciones de protestas pacíficas es una limitación indebida de la libertad de expresión y reunión y puede tener un efecto disuasorio, lo que supone una clara amenaza al derecho de protesta.

**Parte-hartzaileak / Intervienen:**

- Amnistía Internacional: **Dani Canales** (protesta eskubideari eta adierazpen askatasunari buruzko ikerlaria / *investigador sobre el derecho a la protesta y libertad de expresión*)
- Greenpeace: **Sara López Martín** (protesta eskubidean aditua den aktibista / *activista experta en derecho a la protesta*)
- Altxamendu Zientifikoa / Rebelión Científica: **Nate Rugh** (ingurumenean aditua, klima babesteko aktibista / *ambientólogo, activista por la defensa del clima*)

---

**Moderatzaileak / Moderan:** Begoña del Teso, Jon Martija
**Argazkiak / Fotografías:** Floro Azqueta
**Bideoak / Videos:** Zazpi t'erdi, Pixel
**Gaien testuak / Textos temas:**
- **Koordinazioa / Coordinación:** Rosabel Agote
- **Erredakzioa / Redacción:** Rosabel Argote, Jabier Ayesa, Helena González, Mikel Mazkiaran

**Itzulpenak / Traduciones:** Bitez
**Azpitituluak / Subtitulados:** Subtitula'm
**Gida didaktikoak / Guías didácticas:** Zinhezba, Kalakalab, GazteFilm, Tabakalera
**Hautaketa-batzordea / Comité de selección:** Josemi Beltrán, Amaia Revuelta, Alfonso López, Carlos J. Plaza, Noemi Cuetos, Marcela Hinojosa
**Komunikazioko bekaduna / Ayudante comunicación:** Naroa Azkarate
**Diseinua / Diseño:** Ytantos

---

Antolatzaileak / *Organizan*

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Giza Eskubideak Derechos Humanos

**Giza Eskubideen Saila**
**Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea**
**Área de Derechos Humanos**
**Casa de la Paz y los Derechos Humanos**
Aiete Pasealekua 65 - 20009 Donostia-San Sebastián
Tf.: 943 48 19 75

donostia kultura

**Victoria Eugenia Antzokia**
Erregina Erregentea 8, 4ª
20003 Donostia-San Sebastián
Tf.: 943 48 11 57
zinema_gizaeskubideak@donostia.eus


27 FESTIVAL DE MÁLAGA
SECCIÓN OFICIAL FUERA DE CONCURSO
MÁLAGA PREMIERE
EL SALTO
LA ESPERANZA ESTÁ AL OTRO LADO
"Un realismo y crudeza inéditos en el audiovisual español"
Vanity Fair
"Desgarradora y emocionante"
Butaca y butacón
"Una experiencia física extenuante"
El Cultural (El Español)
12 DE ABRIL EN CINES
UNA PELÍCULA DE BENITO ZAMBRANO
GANADOR DEL GOYA POR SOLAS E INTEMPERIE
FILMAX CINE365 FILMS CANARIAS CINE365 FILMS, CASTELAO PRODUCTIONS, VIRTUAL CONTENIDOS Y NOODLES PRODUCTION "EL SALTO" RTVE, MOVISTAR, ORANGE, CANAL SUR RADIO Y TELEVISIÓN Y CREA SGR AYUNTAMIENTO DE MADRID GOBIERNO DE ESPAÑA - ICAA Y EL INSTITUTO DE CRÉDITO OFICIAL
MOUSSA SYLLA, EDITH MARTÍNEZ-VAL, ERIC NANTCHOUANG Y NANSI NSUE VICKY PEÑA, MARIOLA FUENTES Y VICENTA NDONGO CURRO GONZÁLEZ-CEBRIÁN KATI MARTÍ O'DONOGHUE ESTHER VAQUERO ELENA PÉREZ ARTILES HARIDIAN NÓBREGA NICOLÁS MAS ANA MORÁN PHILIPPE GRIVEL
TERESA FONT (AMAE) RAÚL ROMANILLOS JULIANA LASUNCIÓN KOLDO VALLÉS PASCAL GAIGNE ALEX DE PABLO ELENA MANRIQUE Y ELVIRA MORALES SALES JESÚS ULLED NADAL, CARLOS FERNÁNDEZ, LAURA FERNÁNDEZ BRITES Y JÉRÔME VIDAL BENITO ZAMBRANO FLORA GONZÁLEZ VILLANUEVA BENITO ZAMBRANO
Cine365 Canarias films
Cine365 films
CASTELAO PRODUCTIONS filmax
VIRTUAL CONTENIDOS
NOODLES
rtve
M+
orange
CanalSur
MADRID
Madrid Film Office
crea SGR
filmax
#ElSaltoPelícula
filmaxpresenta
filmax
elsalto.filmax.com

**Antolatzaileak / *Organizan***

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Giza Eskubideak
Derechos Humanos

donostia
**kultura**

**Babeslea / *Patrocina***

**Gipuzkoako Foru Aldundia**
Diputación Foral de Gipuzkoa

**Parte-hartzaileak / *Participan***

unicef

UNHCR ACNUR
La Agencia de la ONU para los Refugiados
*euskal batzordea*

( zehar )
errefuxiatuekin

LA ASOCIACIÓN INTERNACIONAL DE EDUCADORES PARA LA PAZ

+tu

EUSKADIKO GGKEen KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA de ONGD EUSKADI

AMNESTY INTERNATIONAL

SOS RACISMO SOS ARRAZAKERIA

CUDHM
Cátedra Unesco de Derechos Humanos
UNAM-México

FiSahara

**Laguntzaileak / *Colaboran***

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Euskara

TABAKALERA

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Deusto
Universidad de Deusto
University of Deusto

FILMIN

Human Rights Film Network
Connecting human rights film festivals around the world

www.zinemaetagizaeskubideak.eus
www.cineyderechoshumanos.eus

ytantos argazkia / foto: **SISU 360° Jotta Zubiria & Uxue Montero**